



ARGIA



40 urte justiziarik gabe





**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Frantziako agintariak ere kriminalizatzen ari dira borroka sozialak

IRITZIAK

- 17 Estitxu Garai Artetxe
- 18 Haizea Nuñez
- 19 Iván Giménez
- Leire Narbaiza Arizmendi



Daniel Bernabé: "Kapitalismoak ez du klase-feminismoa edo emakumeen zapalkuntzaren egiturazko oinarrien kontra doan feminismo borrokalaria utziko".

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIAKO AZOKA
- 41 ARGIAKO KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: CHRISTOPHE AGUITON
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: ARGIA ARTXIBOA

SAKONEAN

- 12 | Ainara Epelde: "Txirrindularitzaren bizi tipoa gustatzen zait" / Miel A. Elustondo
- 20 | Sanferminak 1978: Herri boterearen kontrako asalto / Urko Apaolaza Avila
- 28 | Orain Presoak: "Salbuespen legedia alde batera utzi behar du Espainiako Estatuak" / Lander Arbelaiz Mitxelena
- 32 | Nola gainditu "gu-haiek" diskurtsoa euskara oinarritzko hizkuntza izanda / Onintza Irureta Azkune
- 34 | Daniel Bernabé: "Langile-klasea identitate-kontu batera murriztua gelditu" / Maria Colera Intxausti
- 42 | Elkar: Euskal kulturaren erraldoia eta Espainiako banatzaile handienetakoa / Gorka Bereziartua Mitxelena
- 46 | Patrick Melrose: Delirium Tremens / Gaizka Izagirre

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Asier Gonzalez de San Pedro, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Nahia Ibarzabal, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus





PANORAMA

Jaiaren bizkarretik

Esango dizute jaia bizitzeko bi modu daudela Irungo argazki honetan, baina ez da egia. Jaia bizitzeko modu bakarra dago. Bestea, festa bizi nahi duenari eskubideak ukatzeko jarrera da. Eta ez, hori ez da jaia bizitzea.

Argazkia eta testua: Gari Garaialde / Bostok Photo

Euskaraz hitz egiteagatik Donostiako Emakumeen Triatloitik kanporatu dutela salatu du kirolari batek.



“Por mis cojones que van a hablar en castellano’ gisako esaldiak esan zituen triatloiko epaileak, Behatokiak jaso duenez”

@larbelaitz



“Noizko euskal fronte kultural zabal bat? Noiz konturatuko gara, monolingue espainolak ez direla aldatuko, bere diktadura linguistikopean bizitzen jarraitzen dugun bitartean? Edo konfentazio linguistikora goaz edo gureak egin du”

@Prezz14



“Atleticok eta Federazioak euskaraz egiteko eskubidea bermatzen jarraitzeko konpromisoa berretsi dute. Euskararen erabilerarekiko eskubide urraketa nahita izan ez zela sinesten dugu”

Kanporatutako kirolaria, bilkura egin ostean



Europako Kontu Auzitegiak dio AHT ez dela eraginkorra

Xabier Letona

@xletona

Europako Kontu Auzitegiak kritika oso gogorra egin dio Europar Batasuna azken hamarkadetan eraikitzen ari den tren lasterraren sareari: ez du EB egituratzen, garestia da, ez da aurreikusitako abiadura errespetatzen eta ez du uste helburua beteko denik.

“Gaizki konektatutako linea nazionalen mosaiko ezeraginkorra eraiki da”, salatu du Oscar Ericsek, txostenaren arduradunak. Aztertutako epea 2000-2017koa da. Guztira 30.000 kilometro eraiki nahi ziren eta orain arte 10.000 eraiki dira. Txostenaren ondorioa erabakigarria da zentzu honetan: eraikuntza helburua ez da beteko aurreikusitako 2030erako.

AHTren kilometro bakoitza 25 milioi euro kostatzen da. 2000 eta 2017 artean

EBk 23.700 milioi euro jarri du sarea finantzatzeko eta horietatik ia erdia, 11.200 milioi euro Espainiak eraman ditu. Gainera, gailentze handiak daude eraikuntza lanetan.

Txostenak ez du sakon aztertzen Euskal Y linea, baina oro har ez dela errentagarria izango aurreikusten du. Auzitegiaren kalkuluetan, linea bat errentagarri izateko 9 milioi bidaiari behar ditu urteko eta honek ez du izango. Horrez gain, lurralde egituraketari begira ere Euskal Y-ak hutsune handia izango duela azpimarratu du, abiadura handia Hendaia-raino bakarrik iritsiko delako.

Hori guztia ikusita, EBko Kontu Auzitegiak dio serio pentsatu beharko litzatekeela egiten ari diren inbertsio guztiak tren lasterrera bideratu beharko liratekeen edo ohiko trenbideak hobetzera.

“Espetxe politika berrikusi eta egoera berrira egokitzea planteatu behar dugu”

PEDRO SÁNCHEZ, ESPAINIAKO GOBERNUKO PRESIDENTEA

Espainiako Gobernua euskal preso politikoak Euskal Herrira hurbiltzen hasiko da. Gaixo daudenak eta 70 urtetik gorakoak izango dira lehenak, PEspainiako Kongresuan zeuden kazetariei era informalean adierazi dienez. “Demokraziak ETA garaitu zuen, eta beraz, espetxe politika berrikusi eta egoera berrira egokitzea planteatu behar dugu Gobernu gisa, noski, enpatikoak izanez terrorismoaren biktimekin”, gaineratu du. **2018-06-27**



FAUNA PUBLIKOA

"Irungo EAJ herriaren alardearen alde dago"

Xabier Iridoy,
Irungo EAJko bozeramailea (Hitza)

Ez esan tristea ez denik



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Andre eta jaunok: hauteskunde-kanpainan gaude. Tira, beti gaude hauteskunde-kanpainan, baina udaletako poltronen zozketa berria egiteko urtebete eskas falta denean, pixka bat gehiago. Eta udaberrian hibernaziotik ateratzen diren marmota, triku, igel, musker eta sugeen antzera –zuek hautatu horietako zeinen antzerago–, hasi dira politikariak hurrengo legegintzaldian elikatzeke boto-ehizan.

Irunen, non EAJk gobernu-akordioa puskatu zuen PSE-EErekin utzarrilean; eta non ekain hasieran aurkeztu duten Iridoy hirugarrenez hautagai, badirudi jeltzaleek asmoa dutela erronka serioa botatzeko Jose Antonio "hiri hau nirea da" Santanori. Eta klaro, Irunen irabazi nahi baduzu, ez da tokatzen esatea alarde diskriminatzaileari pixka bat molestatuko dion txorradarik, are gutxiago, egungo alkateari gai horretan gotortzeak eman dizkion emaitzak ikusita.

Pentsatu nahi dut horrek esplikatzeko duela, eta ez fanatismo hutsak, hautagai jeltzalearen deklarazio *völkisch* samar hau.

Gauzak aklatu ditu behintzat, zeren, iazko San Martzial egunean dudak sortu zituen jende onberaren artean Irungo Batzokiko baloiko argazkiak: lehenbizi zabaldutako irudian, desfile parekideari bizkarra eman zieten afiliatuak bakarrik ikusi genituen; gero, irudi bertikal batean, goiko baloian, alarde parekidea txalotzen zuten beste zenbait. Orain badakigu: Iridoyrentzat bigarren horiek ez dira "herria". Ezta konpainia parekideetan desfilatzen duten beste irundar guztiak ere –geroz eta gehiago, portzierto–. Ezta desfile hori txalotzen dutenak ere.

Ikuspegi horren arabera, besteei herritartasuna kentzetik hasten baita herria zerbait izaten. Ez esan tristea ez denik. ■


EZ HANKA EZ BURU!



EUSKARA, JALGI HADI PLAZARA...BAINA EZ SOBERA!

LURRAZPIKO HIZKUNTZA IZATETIK
"LURRALDE HIZKUNTZA" IZATERA...?

ALEGIA,
HIZKUNTZA BAT DA OFIZIALKI,
EZ ORDEA,
HIZKUNTZA OFIZIAL BAT...



ADUR

ANALISIA



Jean-René Etchegaray, Euskal Elkargoko presidente izendatu zuten egunean.

Abertzaleen “ezinezko borroka”-ri esker



Mikel Asurmendi
@masurmendi

Politikaren aroa da Iparraldean. Tokiko hiru lurraldeak biltzen dituen Euskal Hirigune Elkargoa gauzatzen ari da. Frantziako Iraultzaren ondorioz Ipar Euskal Herriko euskal instituzioak deuseztatu zirenez geroztik, politika erreala egiten hasia da.

Gogora dezagun: Lapurdik bere botere legegile eta zerga ezartzailea zituen Uztaritzen: Lapurtarren Biltzarra. Erdi Arotik Frantziako Iraultzara arte Lapurdi gobernatu zuen batzarra. Beste bi herrialdeek ere Batzar Nagusiak edo Gorteak zituzten.

1960. urte aldean Enbata mugimendua sortu zen arte, Ipar Euskal Herria politikoki desagertua izan zen *de iure*. Frantziar politikak ez zuen *de facto* Ipar Euskal Herria aintzat hartu ia bi mendetan. Enbataz geroztik ekimen politikoek –hala HAS edota EHAS alderdiak lehenik, IK talde armatua artean, nola EMA eta AB mugimenduak gero, besteak beste– “ezinezkoaren politika” eraman zuten praktikara.

1963an, Enbataren Itsasuko Agiriak euskal nazioaren batasuna eta autode-terminazio eskubidea aldarrikatu zituen. Iparraldearentzako helburua departamendua lortzea zen epe ertainean, eta epe luzeagoan Euskal Herri osoa batuko zukeen lurralde politiko, administrazio eta kultural autonomoa osatzea.

Departamenduaren aldarrikapenaren ondoren, Lurralde Elkargoaren aldarrikapena heldu zen. Hori ezin gauzatuz, Euskal Elkargoa onetsi zen halabeharrez. Harrez gero, politika posiblearen ordua heldu zaie bertako euskal herritarrei. Abertzaleek erran zutenenez, ez da haiek eskatutako markoa, baina politika posibilistaren unea hobetsi behar izan dute. Hegoaldeko ezker abertzaleari Espainiako trantsizioa delakoa gauzatu ahal gertatu zitzaion legez.

Euskal Elkargoa –EAE eta Nafarroako Erkidegoa legez– estatu guztiahaldunaren markoan egiten ari da. Euskal Elkargoaren eraikuntza hainbat belaunaldi abertzalaren “borroka politiko ezinezkoaren jarduera”-ri esker dela oroitzea haizu da.

Hona instituzioa bermatuko duten bi esparru: ekonomiaren –zergen ezarpen moldea– eta identitatearen politika. Hiriguneak –kostaldeko hiriak– eta kanpainaren –laborantza– arteko oreka dago lehian. Frantsestasunaren eta euskaltasunaren –euskaraz bizi nahi dutenen– arteko talka.

Demografiaren kudeaketa berebizikoa da elkargo baten eraikuntzan. Hona berau ulertzeko datu bat: urtero 10.000 pertsona berri heldu dira Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberora. Aldi berean 7.000 joaten dira kanpora. Iparraldean 300.000 pertsona erroldatuta daude. Udaldian, 600.000 inguru “bizi dira”. Egin kontu! ■

EKONOMIAREN TALAIAN

Kapitalak nabigatzen du, migratzaileak hondoratu egiten dira



Juan Mari Arregi

Arrazoi politiko edo ekonomikoengatik migratzera derrigortutako dozena milaka lagun dabilta europar edo amerikar “paradisura” iritsi nahirik, bidean bizitza uzteraino. Horrek gure jendartearen eta bere sistemaren egiazko aurpegia erakusten du.

Lotsagarria da ikusten ari garena: *Aquarius* ontziaren odisea; *Lifeline*-rena; Italiako eta Maltako portuak itxita; paperik gabeko migratzaileen seme-alabak gurasoengandik bananduta eta kaiolatan giltzapetuta AEBetan; Gibraltarreko itsasartetik *paterak* etengabe iristen... Eta honen guztia- ren erdian politikariak eta gobernauk: batzuek setati uko egiten diote migratzaileak hartzeari, bestetuek ez dakite zer egin, eta batez ere, Europar Batasunean bezala, ez dira ados jartzen migratzaileek eskubideak errespetatuko dituen migrazio politika ezartze-ko. Joan den astean gailur murrizta egin zuten, aste honetan orokorragoa iragarri dute. Baina ez da akordio bateraturik antzematen. EBN, defentsa politikarako eta inbertsio militarre- rako –armagintzako lobbyekin eskuz esku– beti daude ahobateko akordio azkarrak. Migrazio politikarako, ordea, irtenbiderik ez dago. Mediterraneo hobi komun bilakatzeak ez ditu hunkitzen, antza.

Jarrera hori logikoa eta koheren- tea da EBko herrialdeen globalizazio filosofiarekin: merkantziak eta kapi- tala mugi daitezke eta mugak gain- ditu inongo arazorik gabe; migra- tzaileek, aldiz, pertsonak izanik ere, ezin dute halakorik egin eta ez diegu uzten. Hori da hartzen gaituen siste- ma kapitalistaren bisaia! Desberdin- tasunetik eta injustiziatik elikatzen den sistema, migratzaileen jatorriko herrialdeen natur baliabideak arpi- latzen dituen, eta sorrarazten di- tuen gatazketarako armen trafikoa- rekin etekinak ateratzen dituen.



Sexu eta genero aniztasunaren alde

EUSKAL HERRIA. LGBTIQ+ kolektiboak Harro-
tasunaren Eguna aldarrikapen eta jai giroan os-
patu zuen ekainaren 28an. Txoko askotan egin
ziren ekitaldiak; irudian, Bilboko manifestazioa.
Gehitu elkartearen hitzetan, “sexu eta genero
aniztasunarekiko intoleranteak diren jarrerak
bizirik daude” eta “eskubideak errebindikatzeko,
aniztasunetik abiatuta bizikidetzaren alde
egiteko” hartu zituzten kaleak.

MARISOL RAMIREZ / @FOKU

Derrigorrezko Zerbitzu Nazionala 16 urtekoentzat

Argia

Frantziako Estatuan, hilabete bateko Zerbitzu Nazional Unibertsala derrigo-
rrezkoa izango da 16 urteko gazteentzat eta nahi duenak, beste hiru hilabetez
(edo denbora gehiagoz) luzatu ahal izango du zerbitzua, 25 urte bete arte.

“Frantses nazioaren parte”

Errepublikarekiko lotura indartzeko helburuz, herritarrek “frantses nazioaren parte” sentitu daitezela nahi du Gobernuak, “gizarte erresilientea goa” lortzea. Frantses sentimendua berpiz-
teko asmoa du Macro-
nen Gobernuak.

Lau aste derrigorrez

Lehenengo bi asteetan, hala nola proiektu kolektibo bat eratu beharko dute gazteek, hainbat elkarterekin harremanetan. Ondoren, bietan, heziketa zibikoa, lehen sorospe-
nak edota Frantziako Armadako ordezkari-
en hitzaldiak jasoko dituzte, besteak beste.

Aurrekontua

Zerbitzu Nazionala 2022 urtean gazte-
teen erdiei aplika-
tzea aurreikusten du Gobernuak. Ekimena martxan jartzeko 1,7 milioi euroko aurre-
kontua izango du eta urtero 1,5 milioi euro inguruko gastua egin beharko da berau mantentzeko.

EUSKAL
WIKIPEDIA



829

ikaslek (batez ere EHUKoek) 317 artikulu berri gehitu dituzte euskarazko Wikipediara. Guztira 294.000 artikulu ditu gaur egun.

1.070 artikulu ditu Txikipedia aurtengo proiektu berriak. 8-13 urteentzako euskarazko Wikipedia da, eta 13.300 bisita izan ditu sortu zenetik.



IKASLE MUGIMENDUA

Auzitegi Nazionalaren aginduz, Guardia Zibilak operazioa egin zuen ikasle mugimenduaren kontra. EHUn campusetik materiala atera eta hiru ikasle atxilotu zituzten. Laugarren pertsona bat ere deitu zuten deklaratzera. Ondoren, aske utzi zituzten atxilotuak.



ERRAUSTEGIRIK EZ... MADRILEN

Madrilgo Udalak iragarri du Valdemingomezko erraustegi polemikoa 2025ean itxiko dutela. Horretarako, errausten den hondakin kopurua %50era murriztuko du Madril 2022rako.



JOKOA NEGOZIO

Joko-aretoen inguruko kalteez eta ludopatiaren arriskuez ohartarazteko liburuxka argitaratu dute Gasteizko Judimendi auzoko gazteek. Areto hauek auzo txiroetako “behar sozioekonomikoekin jokatzeko oso trebeak” direla salatu dute.

Frantziako agintariak ere kriminalizatzen ari dira borroka sozialak



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Atxiloketak, poliziek eragindako zauriak eta espetxe zigorrak ugaritu zaizkie Frantziako Estatuan pil pilean dauden mugimendu sozialetako partaideei, izan Notre-Dame-Des-Landeseko zadista ala unibertsitate okupatuetaiko ikasle, zabortegi nuklear erraldoi berri bati aurre egiten dioten militante edo arriskuan zeuden etorkin ilegalak aterpetu dituen herritar. Parisko agintariak, gainera, ohartarazi diete gero eta estuago hartuko dituztela, gaizkile elkarteentzako legea aplikatuz.

Hego Euskal Herrian bezala Espainian *Mozal Legea* aplikatu dizutelako Frantziako Estatura ihes egin eta aterpe eskatzea pentsatzen ari baldin bazara, aurretik atera kontuak. Disidentziaren kontrako jazarpenari dagokionez inoiz baino egiagoa da “hemen ere zakurrak hanka-hutsik” esaera zaharra.

Maiatzaren 26an Frantziako Estatuan ezkerreko jendeak Emmanuel Macronen politiken kontrako “*marée populaire*” [herri uholdea] burutzean zenbait hiritan liskarrak gertatu zirenean, Gerard Collomb Barne ministroak erantzukizuna manifestatzaile baketsuak ere egotzi zien: “Manifestatzeko eskubidea, oinarritzko libertate bat dena, bizirik atxiki nahi badugu, derrigorrezkoa da beren iritzia adierazi nahi duten jendeek era berean aurre egitea liskar sortzaileei eta ez, beren pasibitatearekin, gertatzen denaren konplize izatea”. Argi esanda: edo manifestatzaileak bihurtzen dira poliziaren laguntzaile, edo bestela konplize izanen dira eta zigorrak jaso ahal izango dituzte.

Edozein manifestatzaile atxilotuko ote dute konplize izateagatik? Azken hilabeteotan, ugaritzen ari dira manifestatzaile, aktibista eta ikasleen atxiloketa, galdaketa eta auziperatzeak. Azkena, eta sonatua, Bure inguruetan –Hexagonoko ipar-ekialdean– hondakin nuklearrantzako biltegi erraldoi bat eraikitzearen kontra ari diren militanteena.

Ekainaren 16an 3.000 lagun inguru bilduak ziren Buren protestan. 19

pertsona atxilotu zituzten poliziek eta horietatik bi epaileak espetxera bidali agenteen kontra bortizkeria erabiltzeagatik. Lau egun geroago, 20an, goizeko zazpitan hasita jendarmek hamar etxe miatu zituzten Verdun, Bure, Commercya eta baita Parisen ere. Zortzi pertsona atxilotu zituzten, tartean militanteen abokatua bera, Frantzian batere ohikoa ez dena.

Étienne Ambroselli abokatuari, atxilotzeaz gain, ordenadorea bahitu zioten poliziek, esan nahi baita, daramatzan kasu eta bezeroen artxibo osoa. Bost egunez saiatu behar izan zuten abokatuaren elkarteek epaileak materialok itzul ziezazkion. Vincent Niorék, abokatuaren Parisko dekanok –*batonnier*, frantsesez– kasuotarako izendatua daukan ordezkariak esan du: “Urteak daramatzat lan honetan (...) eta sekula ez nuen pentsatuko noizbait iritsiko nintzenik defenditu dudana bezalako kausa bat defenditu behar izatera”. Izan ere, ezer ez da berdin agintariak hasi direnetik gatazka sozialetan inplikaturako militanteei gaizkile elkartearen kontrako legea aplikatzen.

Termometro adierazgarria da Bureko gatazka, Frantziako zabortegi nuklear handiena eraikitzen hasiak dira bertan, baimen guztiak lortu aurretik. Lurpean, 500 metroko sakoneran biltegi erraldoia antolatzeke desjabetu duten baso bat okupatu zuten duela bi urte ekin-tzaileek, *Bureko ZADa* sortuz. Joan den otsailaren 22an 500 jendarme bidali

zituzten jendeak oihanetik ateratzera. Hiru asteko protestetan 25 pertsona atxilotu zituzten: haietatik bi oraindik espetxean daude baina gainerakoek ere presondegian bukatzeko arriskua dute, eta askoz gehiago daude edo eskualdera edo departamendura itzultzeko eskubidea kenduta.

Bureko basoaren hustea, orain ikusten da, entsegua izan zen hilabete batzuk geroago Britainian Notre-Dame-Des-Landesen egingo zutenerako. 70 atxilotu zituzten hemen apirillean eta geroztik epaileek espetxe zigorrak banatzeari ekin diote, azkena bi urteko kondena ekaineko epaiketa batean.

Interes orokorra versus etxeko etsaiak

Uhin errepresiboa ez da ingurumenaren bueltako gatazken eskusiba. Maiatzaren 1eko manifestazioetan Parisen 200 lagun arrestatu zituen poliziak, horietatik 100 galdekatu eta 30 auziperatzeko. McDonald bat erasotu zutela eta, “txikizioak egiteko elkarte antolatzea” egotzi diete, Nicolas Sarkozyren garaian 2010ean onartutako lege aldaketan oinarrituta.

Maiatzaren 22an ikasleek Frantziako Estatu osoan antolatu zituzten protesta eta itxialdietako batean, Parisko Arago lizeoan, poliziek 100 ikasle atxilotu zituzten, horietatik 40 adin txikikoak, hauei ere Sarkozyren legea aplikatuz. Baina ez dago zertan ezer txikitu edo okupatu beharrik Estatuaren hatz-parra zaman sentitzeko, paperik gabe





Jean-Christophe Verhaegenen argazkian, Bure inguruan –Frantziako ipar-ekialdean– Mandres en Barroiseko oihana okupatzen zuten boluntarioetako batzuk. Agintariekin elkarlanean desjabetutako 15 kilometro koadroko gunean industria nuklearrak eraiki nahi du hondakin erradioaktiboentzako lurpeko zabortegia, datozen 130 urteetan betez joango direna. Bureko ZADeko ekintzaileei polizia eta epaileek 'gaizkileen elkarteak' zigortzeko legea aplikatu diete.

muga inguruetan ezin bizirik dabilzan etorkinei laguntzen dieten jendeek beren larruan frogatu dutenez.

Maiatzean bertan Martine Landry Amnesty Internationaleko kidea epaitu dute, adin txikiko bi gaztetxori muga zeharkatzen laguntzeagatik. Maiatzean epaitu dituzte "les trois de Briançon" ere, hiru boluntario suitzar eta italiar Alpe mendietako muga etorkinen alde mobilizatzeagatik. *Association en bande organisée* delitua egotzita, hamar urte arteko espetxe zigorra ezarri diezaieketen. Bitartean, hiru auziperatuen aurka eskuin muturreko jende xenofoboek lasai ederrean egin zuten manifestazioa...

Gizarte mugimenduen eta disidentziaren aurkako jazarpenen zerrenda osoa askoz luzeagoa da. Jean-Jacques Gandini Frantziako abokatuen lehen-dakari ohiak honela ikusi du uholdea:

"Azken hamar urteotan mugimendu sozialen gaineko errepresioa gero eta gogorragoa da. Lege gero eta errepre-siboagoak liskarrak baretzeko aitzakia-rekin erabiltzen dira mugimendu so-zialaren kontra. Hala gertatu da lege antiterroristekin ere, azkenean hori aplikatu zaie 2015ean Klimaren Gailur-rean manifestatu zirenei bezala Lana-ren lege berriaren kontrarioei".

Kode penal frantsesaren 450-1 artikulua kokatzen da Parisek Napoleonen garaietatik matxinadak pertsegitzeko antolatutako legeetan. 1983an Robert Badinter Justizia ministro zela, Miterrrandekin, ezabatu zuen *association de malfaiteurs* delitua, baina hiru urte geroago Chiracek ezarri berriro, atentatu terrorista batzuen estakuruz.

Sarkozy presidenteak gogortu zuen legea 2010ean, aprobetxatuz *Tarnac*

afera, estatua hankaz gora jartzeko atentatu hilgarriak ere egiteko presta-tzen ari omen ziren militante anarkista batzuen atxiloketa. *Omen* azpimarratu dugu, zeren eta hilabeteak aurrera aha-la ustezko konspirazio anarkista hura deusetan geratu baitzen; funtsean izan zen Michele Alliot-Marie ministro lapur-tarrak antolatutako operazio politiko-mediatikoa. Baina kaltea egina zegoen: edozein motatako disidentzia zigortze-ko bidea zabaltzea.

Komunikazioen kontrolak, komisaldegira behin eta berriro deitzeak, miaketak... gero eta estuago bizi dira disident-teak Frantzian ere, etsaiaren zuzenbide penalaren mende, zaku berean sartuta terroristak, laguntzaileak, protestalariak, legez kontra iritsitako etorkinak... Kanpoko edo etxeko, etsaiak denak, le-gearen bermerik merezi ez dutenak. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



«Txirrindularitzaren bizi tipoa gustatzen zait»

Ainara Epelde

Txirrindularien gogo-gorputzen zaindari

Ziklismo munduan ari da laguntzaile lanean (*soigneur*). Mediku izan gabe ere, sendalari da, sasimediku, entrenatzaile, zaintzaile... Fisioterapia eta Kirol Zientziak ikasitakoa, goi mailako txirrindulariez arduratzen da, talde profesionaletan.

Testua: Miel A. Elustondo

Argazkiak: Dani Blanco

Saskibaloio jokalaria izana, Fisioterapia eta Soin Hezkuntza eta Kirol Zientziak ikasia, 2014an sartu zinen txirrindularitza profesionalaren munduan.

Bai. Artean, ahizpa [Mireia Epelde] txirrindulari ari zen, eta Espainiako selekzioan masajista egokitu zitzaiona, Josue Aran, Trek taldeko masajista zen aldi berean. Mireiak Josueri esan zion ea egunen batean eramango ninduen lasterketaren batera, eta horrela hasi nintzen. Betitik ezagutzen dut txirrindularitza mundua, ahizpari segika ibiltzen nintzen-eta, taldeko zuzendarien autoan sartuta, askotan. Ikasketetako azken urtean, berriz, lau hilabeteko praktikaldia egin behar, eta Trek taldean egin nuen. Kirolari baten segimendua egitea zen helburua, eta Haimar Zubeldiarena egin nuen. Eskumuturre-

tik operatu berria zen Haimar, eta nire lana izan zen ziklisten entrenamenduak ikustea ez ezik, Haimarren jarraipen zehatza egitea. Bestalde, egunero bizpahiru ziklistari masajeak eman behar izaten nizekien; tartean, Haimarri, haren eskumuturreko lesioa nola sendatzen ari zen aztertuz. Primeran egon nintzen. Entrenamendu garaia zen, giroa lasaia zen, ez zen lasterketa bateko egoera larria.

Zer moduz Haimar Zubeldiarekin?

Oso ondo, oso mutil sanoa da... Markel Irizarrekin ere izan nintzen. Hau ere oso jatorra. Oso diferenteak dira, baina primeran osatzen dute elkar.

Euskaraz aritzen zineten?

Akabo, bada!

Ainara Epelde Bikendi

Azpeitia, 1991

Fisioterapia eta Soin Hezkuntza eta Kirol Zientziak ikasketak egina. Kirolaria. Herri krosak egiten hasi zen, eta ez zen herrena. Saskibaloian jokatu zuen, eta Gipuzkoako eta Euskadiko selekzioekin jokatu zuen, eta irabazita dago Espainiako txapelketak ere. Espainiako Bi Ligan eta Espainiako maila nazionalen ere jokatu dago Madrilgo CREF Alameda de Osuna taldean bi urtez. Txirrindularitzan dabil, *soigneur* lanean, bateko eta besteko taldean: Trek, Murias, Aqua Blue, Espainiako Emakumeen selekzioan... Gustuko lanean.



Murias taldean lan egin zenuen gero, bi urtez.

Bai, iaz arte. Kontaktu kontua da. Curriculum, esaten dute, baina askok ez diote curriculumari begiratzen. Nonbaiten ondo lan egin baduzu, nahikoa da baten batek behar den lekuan esatea: "Treken lau hilabetea egon da praktikak egiten, balio du". Horrelaxe izan zen Muriaseen kasuan. Jakin zuten Trekekin praktikak egin nituela, ikasketak bukatu berria nintzela, euskalduna, fisioterapeuta... eta kasu egin zidaten. Nik txirrindularitza munduan egin nahi nuen lan, aukera etorri zitzaidan, eta halaxe.

Txirrindularitza zalea zaitugu?

Txirrindularitza giroa gustatzen zait. Kirola biltzen duen zera hori. Telebistan ikustea gustatzen zait, bai, baina telebistan ikustekotan, nahiago ditut beste kirol batzuk. Txirrindularitzaren bizi tipoa gustatzen zait. Surfak ere badu bizi tipa hori. Hemendik hara eta handik hona bizi, nomada... Orain momentuan gustatu egiten zait bizimodu hori. Ziklismo munduan ikusten ditut batzuk lanean, gurasoak dira, edo familia dute, 40 urtetik gora dituzte. Horretan ez, nik ez dut ikusten nire burua 40 urterekin ziklismoan lanean. Egur handia iruditzen zait, egun asko kanpoan, eta kanpoko egunetan lan asko egiten da, ekipoaren mende bizi zara eguneko 24 orduetan, beraiekin batera egiten duzu lo, beste-erentzako bizi zara eguneko 24 orduetan. Beharbada, astean behin, edo bitan, korrika egiteko tartea izango duzu. Bizimodu gogorra da, baina gustatzen zaidan bizia. Bizi berezi bat da.

Ez zara, hala ere, talde jakin bateko langile, zeure buruaren jabe baizik.

Bi eratara egin ohi da lan: talde jakin batekin urteko kontratua sinatuta, edota, bestela, egunka. Kontratupean lan eginez gero, hileroko soldata finkoa duzu, oporrak ere ordainduta, lanegun kopuru zehatz bat. Bizimodu orekatu xamarra da, nahi izanez gero. Hala ere, gaur egun kontratua lortzea oso zaila da, taldeek nahiago dute-eta egunka hartzea gu bezalako langileak. Merkeago zaie, jakina. Egunka ordaintzen dute, eta gero, norberak konpondu behar du ogasunarekin. Ni hasiberria naiz, eta egunka ari naiz. Jakina, gustura lan egingo nuke kontratupean, baina, bitartean, talde batek hots egin eta esaten dizu-

nean: "Halako lasterketara etortzerik ba al daukazu?". "Bada, bai!". Baliteke talde batek baino gehiagok hots egitea aldi berean-edo, baina kontua da, ahal dela, beti talde berarekin lan egitea.

Aqua Blue Sport taldearekin ari zara orain. Zer lasterketa egin dituzu aurretik?

Aqua Blurekin ari naiz, baina urtea Caja Ruralekin hasi nuen: Mallorcako Itzulia, Bessègeseko Izarra eta Omaneko Itzulia egin nituen. Harrezkero hasi nintzen Aqua Blurekin, eta zenbait klasiko egin nituen Belgikan, Kroazian, Yorkshiren (Inglaterra), Norvegiako Itzulia, eta ondoren hiru asteko pausaldia eduki dut. Orain, berriz, zain dut tour pribatu bat. AEBetan eta beste zenbait herrialdetan, afizionatuek, edo masterrek, ohitura dute talde txiki bat osatu eta itzuli moduko bat egitea. Lagunduko dien talde teknikoak behar izaten dute, eta tartean, fisioterapeuta. Hori eginda, denboraldiko bigarren partea etorriko zait, baina horretaz ezer ere ez dakit oraindik. Urtean 150en bat lanegun egiten ditugu, eta dagoeneko egun asko egin ditut, edo dezente.

Ziklista lasterketak ikusten ditu zaleak, kanpotik. Barrutik, zer ikusten duzu zuk?

Zer zirku dagoen txirrindularitzaren atzean! Horixe ikusten dut: nola dagoen antolatua, zein bizimodu nomada dugun, zenbat gauza behar diren txirrindulari batek etapa bizikleta gainean egin dezan, zenbat material behar den, zein jateko, zein ordutegi diren... Esaterako, bost orduko karrera egin ahal izateko, hemezortzi lanordu egin behar izaten ditugu guk. Beste lan askotan bezala, ziklisten karreraren atzean dagoena ez da ikusten, ez dago agerian.

Hemezortzi ordu esan duzu, eta ez dakit esate aldera esan duzun, beroarena kenduta ulertu behar dugun...

Goizeko zazpiak aldera jaiki, eta oherra gaueko hamar eta erdietan edo hamaitan joan. Horixe gure ordutegia. Ez gara ari denbora guztian lanean, baina zer edo zertan ari gara denbora guztian.

Zein duzu egun bateko lana?

Bi eratara lana egin dezakegu: hotelekoa, edo karrerakoa. Hoteleko lana egiten duenak, goizeko zazpietan jaiki, gosaldia eta ziklistek karrerarako behar duten materiala prestatzen du: bidioiak

Afizioa

"Hemengo afizioak oso fama handia du, asko animatzen ditu ziklistak, baina Belgikakoa ere ikaragarria da. Hango klasikoak ikusi nahi, eta hiru egun lehenago joaten da jendea leku on bat hartzera. Bestalde, harrituta geratu naiz aurretik, Yorkshiren ikusi dudanarekin. Harriagarria. Sekulako eguraldia egin digu, eta hura jendetza, ziklistak ikusten!"

Bidoiak asfaltoan

"Gauza ikaragarri aldatzen da herrialdetik herrialdera. Omanen, adibidez, iraintzat dute ziklistek bidoia bide bazterrera botatzea. Debekatua dute. Beste leku batzuetan, berriz, jendea anoa-gune inguruan izaten da, ziklistek botatzen dituztenak biltzen, dela bidoiak, poltsak, energia-barratxoak... Edozer gauza!"

edariz eta elikagaiez bete, hozkailuak osatu -eguraldiaren arabera, gatz eta ur kantitateak aldatu egiten dira-, ziklistentzako gosaria gertatu, lantalde teknikoaren bazkaria, autoak barrutik garbitu -mekanikariak garbitzen dituzte kanpotik-, traste eta maleta guztiak jaso, kamioia edo dena delako ibilgailua prestatu eta martxa, karrera hasi baino ordu erdi bat lehenago, egun horretako helmugari dagokion hotelera, 200-300 kilometrorra, gehienetan. Hotelera heldu, eta sarrera guztia egitea dagokigu. Gero, hurrengo eguneko elikagai zenbait prestatu behar izaten dira; arroz-pastela, adibidez, bezperan egin behar izaten da-eta. Ziklisten janari-gela ere



antolatu behar izaten da, masaje-gela... Ziklistak etortzen direnerako prest egon behar dute gauza guztiek. Eta hurrengo eguneko ordutegia zein izango den ere jakin behar izaten du.

Zerrenda luzea da. Ez da lana bukatzen?

... Baita kamioia garbitu ere. Eta garbigailua jarri... Horixe egiten du hoteleaz arduratzen den pertsonak. Lan asko dira, xehetasun asko, lan zaila ez bada ere. Nik, hala ere, hoteleko lan hori egin beharrean, bestea egiten dut, karre-rakoa. Orduan, lasterketarekin batera auto ilaran joatea da nire lana: ziklistak irten baino ordu erdi lehenago ir-tengo naiz autoan. Anoa-gunera joango

Ainara Epelde fisioterapeuta da, baina ez da egiten duen lan bakarra, makina bat aldiz egon da anoa puntuetan txirrindulariei janaria eta edaria ematen. Argazkiak Ainara Epeldek utziak dira.

naiz, eta ziklistei ura emateko gunera, eta, gero, handik helmugara. Bostak jota iritsi ohi gara helmugara, eta handik hotelera egiten dugu. Ziklistek eguna bukatu dutenean mekanikariek bizikletak garbitzen eta aztertzen dituzte, eta gu –hiru bat pertsona, gutxienez, talde bakoitzean–, ziklista guztiei masajea ematen hasten gara. Hori egin eta gero, dutxatu eta afaltzera. Gertatu izan zaigu,

Yorkshiren, adibidez, hotelean azkene-ko afari txanda bederatzietan izatea, eta guk masajea ematen hamarretan bukatzea. Plater hotz bat jartzen ziguten, eta halaxe afaltzen genuen. Normalean, hala ere, garaiz afaltzera iristen gara. Berandu xamar bada ere.

Zenbat gauza!

Ez da lan zaila, gauza txiki asko dira, xehetasunak zaindu behar izaten ditugu... Horrelaxe joaten dira gure egunak. Antzekoak dira beti. Tira, taldeak etapa ona egin badu, edo karrera irabazi badu, masajeko edo afaltzeko giroa ezberdina da, ziklistak daukan umorea aldatu egiten da. Fisioterapeuta naiz, baina bi-hiru ordutan egiten dut fisio lana. Gainerakoan, psikologo izan naiteke, edo ama, edo sukaldari eta garbitzaile... Rol denak egiten ditugu *soigneur* garenok. Talde handi batean, hamar bat lagun izan gaitzke *soigneur* lanean, batzuk fisio gara, beste batzuk kirol masajistak...

Zenbat emakume ari zarete ziklismo munduan lanean?

Oso gutxi ere. Oraingo Acqua Bluen, adibidez, emakume bakarra naiz. Baita Murias taldean ere. Treken, beste bat ere bazen. Dimension Data-n baziren batzuk. Oso neska gutxi gara txirrindularitzan. Gizonezkoen txirrindularitzan, dena den, zenbait taldetan emakumezkoak nahi dituzte, giroa orekatzen laguntzen dugula esaten dute, gizonezkoaren eromen puntua baretzen omen dugu. Zenbait taldetan, ordea, ez dute emakumerik nahi, gizonaren pareko lanik ezin dugula egin diote.

Hoteleko lanean nahiz lasterketakoan, *soigneur*-ek ez duzue karrera ikusten.

Nik lasterketako lana egiten dut, horixe gustatzen zait, eta bi puntutan pasatzen ikusten ditut ziklistak, anoa-gunean eta ura ematerakoan. Beste karrerarik ez dut ikusten nik. Kar, kar...

Zenbat zabor botatzen duten ziklistek anoa-gunearen inguruan, edota helmugara iristean.

Hori aldatzen ari da, beste gauza asko bezala. Bada elikatzeke 500 metroko tarte bat, eta hantxe eman diezaiekegu anoa ziklistei. Horren ondoren, beste tarte bat, 500 metrokoa, ziklistek zaborra botatzekoa. Gauza berria da, baina horretan ari dira. Esate baterako, Nor-



**TALLERES
MITXELENA**
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

943 453 588 · www.sigacus.com



vegiatik etorri berria naiz, eta han, delako zabor-gune horretan, karreraren atzetik etortzen diren langileek -anoa-guneko pankartak-eta kentzen, besteak beste-, ziklistek botatako zaborra biltzen dute. Zenbait karreratan, bi zabor-gune ere jartzen dituzte. Eta, bestalde, zenbait ziklistek, zabor-gune horietan ezin izan dutelako-edo, aulki azpian ere gordetzen dute zenbait zabor, aluminio-papera eta beste.

Aldatzen ari da hori ere...

Bai, bai. Ziklistak zigortzera ere iritsi dira horregatik. Ez bakarrik autoari helduta tarte bat egiteagatik, baita ziklismoaren irudia kaltetzen omen duten jokabideengatik ere.

Zein hizkuntzatan komunikatzen zarete?

Gaur egun, denek dakite ingelesez. Ziklistekin, beraz, ingelesez, batere eragozpenik gabe egiten dut. Bestalde, gaztelaniaz, italieraz eta euskaraz ere badakit, eta horiek ere erabiltzen ditut hizkuntza horietako ziklistekin. Frantsesez, neurri batean moldatzen naiz. Garai batean, frantsesa zen ziklismoa hizkuntza ofiziala, eta, gaur egun, berriz, ingelesa eta frantsesa dira. Tokian tokiko karrera eta itzulietan, bertako hizkuntza erabiltzen dute lehenengo, eta ingelesa bigarren. Hala ere, adin bateko epaileek-eta, frantsesa erabiltzen dute oraindik, nahiz eta ingelesa ikastera ere derrigortuta dauden. Horrez aparte, asko gustatzen zaizkit hizkuntzak, eta inora noala ere, bertako hizkuntzan zer

Azken hitza:

Egunka lanean

"Egunka lanean ari naiz, eta ez dakit zer izango den hurrengo urtean, baina ezta hemendik lau hilabetera non ibiliko naizen ere. Oraindik orain, Ramontxu Gonzalez Arrietak hots egin dit, Espainiako emakumezko ziklisten taldearekin Europako txapelketara joateko".

edo zer esaten saiatzen naiz, "eskerrik asko", eta "agur" besterik ez bada ere. Saiatu, behintzat.

Fisioterapiarekin batera, Kirol Zientziak ikasia, ziklismo-talde profesionaletan lanean, zein bide egin nahiko zenuke etorkizunean?

Ez dut askorik pentsatu. Oraintxe, hauxe gustatzen zait. Entrenatzaile pertsonala izan nintekeen, edo soin hezkuntzako irakasle ikastetxe batean, baina hezkuntza fisikoa ikasteak eman didan alderdi jakin bat estimatzen dut gehien: kirola ikusteko eta ulertzeko era. Fisioterapiak, bestalde, kirolari bakoitza modu jakin eta berezi batean tratatu behar dudala erakutsi dit, ez dit erakutsi nola artatu behar dudana, zehatz, baina bai modu berezi batean egin behar dudala. Lanak berak erakutsiko dit beste guztia. ■

Justiziari uluka

Espainiako epaitegietan justizia eskatzea eguerdian ilargi bila ibiltzearen parekoa da. Saia zaitezke, baina normalean ez duzu lortuko. Asko jota, otsoen uluak entzungo dituzu.

Ez da espainiar justiziak euskaldunak ez gaituela babesten, espainiar justizia sistema euskaldunon etsaia da.

Ez da espainiar justiziak emakumeak ez gaituela babesten, espainiar justizia sistema emakumeon etsaia da.

Ez da bakarrik botere banaketa ez dela existitzen, baizik eta epaileak euren direla politika atzerakoienak irau-naraztearen arduradunak.

Enegarren sententzia injustuak Altsasuko gazteena eta La Manadako bortxatzaileena –bai, bortxatzaileena– izan dira. Batera gertatu direla-eta, bata bestearen proportzionaltasun eza eta besteak bataren neurrigabehera agerian utzi dute. Tratu ezberdindu horretan, alabaina, ez dago interpretazio juridiko interesatu eta ideologizatu bakarrik. Espainiako Estatuaren eraikuntzaren zati batean baliatutako identitatea dago tartean. Identitate patriotiko, hantuste, autoritario, irrazional eta maskulinoa. Kultura oso baten parte da, eta La Manadakoak horren ordezkari dira. Euretako bat guardia zibila eta beste bat militarra izatea ez da inondik inora ere anekdota hutsa. Ez da kasualitatea. Kausalitatea da. Horregatik daude aske. “Euren” presoak direlako. Horren adibide da Espainiako telebista kate pribatuetan, botere faktikoen jitearen ispilu handi horietan, jo ta su ekitea La Manadako “mutilak” zuritzen eta Altsasuko “erradikalak” kriminalizatzen.

Halere, aurretik ezagututako beste sententzia batzuen aldean, bi hauetan ezberdintasuna kaleko erantzuna eta sumindura kolektiboa izan da. Bietan ala bietan elkartasun olatua antolatuta zegoen sententzia jakin orduko. Jendea



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Baten batek pentsatuko du zerikusirik ez duten gauzak nahasten ari naizela, baina guztien oinarrian barneratutako sistema atzerakoi, autoritario eta patriarkal bera dago. Sinplifikazio bat eginez, espainiar kartzeletan ijitoak, euskaldunak, katalanak eta etorkinak daude/gaude. Horiek gara Estatuko subalternoak. Ez dago lekuri bortxatzaile, iruzurgile, lapur aberats edo torturatzaileentzat

nazkatuta dago. Nazkatuta dago Euskal Herrian, baita Euskal Herrikan kanpo ere, aipatu estatu-bilbadura horren zama gero eta pisutsuagoa baita gure mugetatik gaindi. Espainiako apartuen partetik, ordea, errebindikazioei erantzuteko modu bakarra *mano dura* autoritario eta adoktrinatzalea da. Altsasukoei persona bat akabatzeagatik baino kondena luzeagoa jartzea, La Manadako bortxatzaileak askatzea eta Kataluniako eskaera soberanistari emandako erantzuna mundu eta Estatu ulkerara beraren adierazpenak dira. Baten batek pentsatuko du zerikusirik ez duten gauzak nahasten ari naizela, baina guztien oinarrian barneratutako sistema atzerakoi, autoritario eta patriarkal bera dago. Sinplifikazio bat eginez, espainiar kartzeletan ijitoak, euskaldunak, katalanak eta etorkinak daude/gaude. Horiek gara Estatuko subalternoak. Ez dago lekuri bortxatzaile, iruzurgile, lapur aberats edo torturatzaileentzat. Ez dadin esan gabe geratu, sistema makillatzeko eta zilegitasun ukitu bat emateko “euretako” bat sartu behar badute, luxuzko ziega atonduko diote pasa behar duen denbora apurra gozatzeko.

Orain artekoa irakurrita balirudike, esaterako, indarkeria matxista eta patriarkatua kontu espainola baino ez direla, eta, zoritxarrez, ez da horrela, ezta urrik eman ere. Euskal Herrian egunero jazartzen baikaituzte berdin-berdin emakumeok. Gauza bat argi daukat, ordea: egiazko demokrazia eta sistema judizial justuago bat eraikitzeak Espainiako epaitegien katetik eskatzea da aukera bakarra. Espainian ezin da, Euskal Herrian saia gaitzek. Egitura zurrun horietatik at guztia baitugu irabazteko. Horregatik da hain inportantea sortutako haserre eta samin kolektiboa bideratzen jakitea eta errebindikazioen epizentroa Euskal Herriratzea. ■

Armairuak, jauziak eta zizailak

Nerabeak ginen, hamalau eta hamabost urte genituen bi uda horietako opor txikietan. Arantxaren gurasoek kostaldeko herri batera joateko ohitura zuten eta haiekin astebetetz joatera gonbidatu ninduen. Gauero ohe berdinean lo egiten genuen, eta kasualitatez, nire azalak berea igurzten bazuen gorputza pizten zitzaidan. Lokartzen nintzenean ametsek sasi guztien gainetik eramaten ninduten, baita nire buruarekin egiten nituen isilgordekako masturbazio jolasetan ere. Baina nire buruari hezur-haragizko errealitate hori ukatzen nion. Nola izango nuen nik ba desira lagun horrekiko? Ez al nuen nik Alberto maite? Nola esango nion? Zertarako? Zer esplikatu nieke gurasoei? *Tortillera* nintzela? Falta zena! Ez, ez, ni heterosexuala nintzen, mutil batekin maite-minduta nengoen eta bera izango zen “heriotza”-k banatu arte nire maitale bakarra eta nire seme-alaben aita.

Familian, eskolan eta katekesian ondo irakatsi zidaten doktrina horretan, gertuko eremuetan ez nuen LGBTBIQ+ pertsonarik ezagutzen eta konfiantzazko pertsonen ahotik entzuten nuen bakarra “pertsona horiekiko” mespretxua eta iraintzeko hitzak ziren. *Gu*-aren barruan egoteko, beharrezkoa



Haizea Nuñez

ABOKATUA

@haizea_nunez

Ez al nuen nik Alberto maite? Nola esango nion? Zertarako? Zer esplikatu nieke gurasoei? *Tortillera* nintzela? Falta zena!

zen “haietako” bat nintzela ez nabaritzea. Nahita ezkutatu zidaten gure familian bazeudela pertsonak beste modu batez harremantzera ausartu zirenak. Zoritzarrez, genealogia horren behar handian nengoenerako biak hilda zeuden.

Eskolako lagunarekin sentitu nuena ez zen nerabezaroaren gauza igarokorra eta, unibertsitatera joateko garaia iritsi zenean, armairuaren ateak ireki-

tzen hasteko –armairuak ez direlako askotan egun batetik bestera suntsitzen-indarra eta jauzi horretan lagundu zidaten erreferente zein bidelagunekin topatzeko aukera iritsi zen. Garai hartan bizitzak oparitu zizkidan adiskide berriak, konplizitate eta intimitateko aliatuak, irakurketak, genero, klasea eta arrazaren arteko bidegurutzeak eta ezagutzen nuen arauak barnebildu ezin zituen harreman ereduak.

Geroztik urteak pasa dira egunero-kotasunean barneratutako lesbofobiari eta kanpotik datorrenari aurre egiten. Amorrutik, desiratik, kontzientziatik, ekintza zuzenetik eta elkartasunetik. Ez da egun bat pasatu lesbofobia zantzurik bizi ez dudarik. Sotilagoak edo gogor-ragoak, den-denak mezu berdinarekin: ez zara izan behar den modukoa, tokiz kanpo zaude.

Geroztik urteak pasa dira zizailak zorrozten, giltzarrapoak eta hesiak mozten. Bizipozetik, gorputz-gogoaren grinetatik, goxotasun erradikaletik eta *gu*-aren eraikuntzatik. Ez da egun bat pasatu bihotzetan daramagun mundu berri horren laginik espermentatu ez dudarik. Erradikalagoak edo erreformistagoak, gure kontraesanekin, den-denak norabide berdinean: bagara, bagaude, bagoaz! ■

**GUZTION LIBURUAK,
BIDEOAK, AUDIOAK...
GUZTIONTZAT**



HARPIDETU



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

www.booktegi.eus

Benetan batzen gaituena: korralitoa



Iván Giménez
KAZETARIA
@IvnGimnez

ruñean, semaforo batean geldirik. Aurrean, Villavesa. Haren atzealdean, iragarki erraldoia: *Zoco* patxaran botila, lelo batekin: “Benetan batzen gaituena” (*Lo que de verdad nos une*). Pentsakor geratu naiz, lelo hura beste nonbait irakurria nuen susmo lauso eta harrapaezinarekin. A, bai! Euskaltelen aspaldiko leloa: “Batzen gaituena”. Hala ere, Nafarroako patxaranak “benetan” gehitu du. Bere esanahia izango du, nonbait, agian Euskaltelena ez zela fidagarria edo...

Lotura batzuk jira-biraka hasi ziren nire buruan. Patxaranak nafarroko batzen omen gaitu, Euskaltel, alta, euskaldun guztiok –edo erkidegotarrak?-. Nola ahaztu Frantziako Tourrean ordezkatzan gintuen marea laranja hura, hain kirolzalea, jatorra eta transbertsala –hau da, klaseen artekoa, apolitikoa, naturala...?-.

Nafarroko ongi dakigu *Zoco* patxarana nondik datorren: Gerra Zibileko erreketea eta Diputazio frankistaren ordezkaria zen Ambrosio Velasco (Vianako jauntxoaren semea) sortu zuen, eta monopolioaren bidez, *Zoco* patxaranaren sinonimoa bihurtu zen: “Ez esan *Zoco*, esan patxarana!”

Euskaldunok –erkidegotarrak bereziki– jakin beharko genuke Euskaltel nondik datorren. 1996an, Ibarretxe eta Mayor Orejaren akordioak Aznarri bere lehen inbestidura eman zion. Edukien artean, Euskaltel sortzeko Estatuaren baimena. Horren truke, EAJk PPren lehen agin-

taldi beltz hura ahalbidetu zuen. Telekomunikazio-enpresa publiko gisa sortu zen Euskaltel –Eusko Jaurlaritzaren eta artean publikoak ziren aurrezki kutxen kontrolpean– eta euskal ikur distiratsuen bihurtu zen, Tourmaleten zein enpresa teknologikoen olinpoan. Euskaldunok, aizue, harro egoteko moduko enpresa bat daukagu!

Esan gabe doa, ate birakariak jiraka hasi ziren, enpresaren presidenteengandik (Ardanza) hasita, eta administrazio kontseilu osora iritsiz: EAJren hatz miragarria. Baina kapitalismoaren bideak ezin asmatuzkoak direnez, Eusko Legebiltzarrak onartutako pribatizazioak langileen kaleratzeak eta kontrol publikoaren amaiera ekarri zituen. Alta, euskal ikurak, “Batzen gaituena”, bizirik jarraitu zuen, eta zuzendaritza etekinak poltsikoratzen hasi zen, milioika –9,2 Alberto García Erauzkinentzat, adibidez–.

Egun, March sendiaren (Francori Gerra Zibila finantzatu ziona) funtsaren eta nazioarteko putreen eskuetan dago Euskaltel eta bere egoitza Euskal Herritik alde egiteko arrisku frankoan dago; Velasco familiak nafarron ikurra *Pernod*-i saldu zion bezalaxe.

Zoco-ren arrastoa jarraitu du gure marea laranja jator hark.

Denon ikurak, gutxi batzuentzako mozkinak. Benetan batzen gaituena?

Leitzarango bi aldeetan korralitoa. ■

Karamelu zaparrada



Leire Narbaiza
Arizmendi
IRAKASLEA
@txargain

San Joan bezpera da, jaiak Eibarren. Danborrada noiz pasatuko zain gaude, ume talde batekin. Logurak eta nekeak jota daude, baina itzelezko ilusioa egiten die konpainien desfilea ikusteak. Berandu da eurendako, bihar kontatuko dute sekulako parranda egin dutela.

Pasatu dira gure aurretik banderadun, kantiñera, danbor- eta upel-joleak. Herriko banda ere ikusi dugu. Karroza besterik ez da falta.

Oso urrun dator eskubaloi jokalariz betetako kamioia, eta hurreratu zaigunean konfeti eta karamelu zaparrada jaurti digu. Hori zoramena! Asfalto zikina inoiz baino arakatuago, gozoki galduaren bila! Umeen aurpegi zoriontsua! Eurek

jasotakoez gain, helduok batutakoak ere eskuratu baitituzte! Zelako azukre festa!

Karrozaren ondorik ere ibili gara, ea gehiago harrapatzen genituen. Poltsikokada bete gozo lortuta abiatu gara etxera, irribarrea ahoan.

Kontua da ume horiek ez direla oso litxarre-roak: kutxa baten sartuko dute altxorra, ahoan beharrean. Halere, ehiza bizian ibili dira.

Ez gara karamelutan ibili gozo-goseak bulztatuta; baizik eta doako gauzen lilurak mugituta, denok barruan dugun harrapakari senak akuilu. Metatzea dugu helburu, inork baino gehiago edukitzea. Gehiago-guran beti, ase ezin. ■

SANFERMINAK 1978

HERRI BOTEREAREN KONTRAKO ASALTOA

Komeni da gogoratzea. 1978ko Sanferminak "hautsi" zituztenak zein izan ziren ez ahaztea. Azaltzea zer ari zen ernetzen Nafarroako eta Euskal Herri osoko jendarte iraultzailean, eta zer zapaldu nahi izan zuten kaleak gorriz tindatuz. 40 urte geroago, Iruñeko Udalaren enkarguz aditu talde batek egindako txostenak argi utzi du: eskarmentua izan zen, zigorgabetasunak estalitako gizateriaren kontrako krimena.

Urko Apaolaza Avila / @urkoapaolaza

Argazkiak: ARGIA artxiboa



40 urte ere ez dituen euskal herritarra-
rentzat, gurasoen etxeko apalategian
gordeta dagoen aldizkari zaharreko iru-
di satinatua baino ez da 1978koa; ke-
-boteen zuriak lausoturiko argazkien
bidez imajinatzen zituen, txikitan, hel-
duek iragan hurbileko borrokez konta-
tzen zioten apurra.

Urte hartako uztailaren 8an polizia
olde bat Iruñeko zezen plazara sartu
zen tiroka eta borrak eskuan, amnis-
tiaren aldeko pankarta baten aitzakian.
Esku-hartze armatu handiago baten ha-
siera baino ez zen, hurrengo egunetan
Iruñean eta Euskal Herriko beste hain-
bat txokotan errepresio polizialak do-
zenaka atxilotu, ehunka zauritu eta bi
hildako utzi zituen: German Rodriguez
eta Joseba Barandiaran.

Diziplina ezberdinetako adituz osatu-
riko egiaren batzorde batek (Josu Chue-
ca, Pedro Ibarra, Amaia Kowasch, Jacin-
to Lara, Nerea Pérez, Pepe Uruñuela eta
Begoña Zabala) gertaera haien inguruko
txostena idatzi berri du Iruñeko Udalak
eskatuta. NUPeko irakasle Emilio Ma-
juelok eta Juan Carlos Garciak egindako
azterketa tekniko dokumentalean oi-
narritu dira, besteak beste, hasieratik
peñen batzordeak esan eta urte hauetan
guztietan herritar askok pentsatu izan
duena baieztatzeko: oldarraldia aurrez
prestatu zegoen eta erantzuleak zi-

gortzeko ikerketa judiziala zeharo ardu-
ragabea izan zen.

Komeni da gogoratzea. Zezen plazako
irudi satinatu hori, irudi estatiko bihur
baitaiteke bestela, momentu zehatz ba-
teko gertaera zehatza, markorik gabe;
pankarta bat edo walkie-talkie bidez
Vulcano-k emandako “zorigaiztoko”
agindu bat baino ez.

Zeinek kontrolatzen zuen hura?

Iruñeko peñek 1978an egindako iker-
keta, *Asi Fué* (Horrela izan zen) izeneko
liburuxkan argitaratua, ezinbestekoa da
gaur egun oraindik ere poliziaren era-
soaren inguruko kontakizun ofiziala ge-
zurtatzeko –4.000 lagunen testigantza
jaso zuten–. Poliziak istiluak sortu bai-
no lehenago inguratu zuen zezen plaza
eta Miguel Rubio komisarioa aurrean
zutela ordena publikoko indarren doze-
naka agente barrura sartu zirenerako,
amnistia eskatzeko pankartak sorturiko
eztabaida amaituta zegoen. “Dena lasai
zegoen –dio lekukoetako batek– poli-
ziak armak eskuan ezustean sartu zi-
renean, pasabidetik zetozen txikien ar-
tean nahastuta, han eta hemen kolpeka,
pilotak eta ke-boteak jaurtitzen”. Hon-
darrezko plaza hustu ondoren, ordea,
bigarren oldarraldia egin zuten festen
aurretik Iruñera eramán zituzten Lo-
groñoko konpainia bereziek, eta hauek

egiazko balaz eraso zituzten harmaile-
tan ihesean zebiltzanak. Peñen ikerke-
tak jasotzen duenez, erizaintza gelan
50-55 pertsona artatu zituzten, horieta-
ko zenbait balaz zaurituak.

Hurrengo orduetan konpainia bere-
ko polizia armatuek izua zabaltu zuten
hirigunean izandako istilu gogorretan,
suzko armak erabili baitzituzten herri-
tarren kontra, izan cetme metraileta
zein pistola, orduko argazkiek erakus-
ten duten moduan. Horietako batekin
hil zuten German Rodriguez LKlko mili-
tantea Orreaga kalean.

Ignacio Llano gobernadore zibila txo-
txongilo hutsa izan zen aginduak ema-
ten zituzten Fernando Avila koman-
dantearen eta haren gaineratik zeuden
teniente koronelen aurrean: “Ez dago
nire kontrolpean”, errepikatzen zien
behin eta berriz Gobernu Zibileko bu-
legoan peñetako ordezkariak, egoera so-
segatzeko neurriak hartu zitzala eska-
tu ziotenean. Zeinek kontrolatzen zuen
hura orduan?

Ordura arte, Sanferminetako giro po-
litikoa “askoz motelagoa” izaten ari zen
beste urte batzuekin konparatuz gero,
*Zeruko ARGIA*n idatzi genuenez –1973
eta 1976ko festetan izandako manifes-
tazio eta mitinak gogoan–. Baina tes-
tuinguru errepresiboa gero eta borti-
tzagoa zen: “Hilabete batzuk lehenago



- » Polizia olde bat Iruñeko zezen plazara sartu zen tiroka eta borrak eskuan, amnistiaren aldeko pankarta baten aitzakian. Esku-hartze armatu handiago baten hasiera baino ez zen
- » Hegoaldeko lau lurraldeak inoiz baino gertuago zeuden elkarrekiko, amnistia nahiz autodeterminazioa aldarri hartuta, eta Nafarroa zen epizentro nagusietako bat. Baina paradoxikoki, 1978an Nafarroa beste euskal lurraldeetatik bereizteko prozesu instituzionala martxan jarri zen
- » 1976an Gasteizen bezala 1978an Iruñean, kontrolagaitza zitzaien herri boterea ito nahi izan zuten

1978ko uztailaren 8an, arratsaldeko zezenketa amaitu eta berehala, polizia armatua oldarka sartu zen zezen plazan eta dozenaka zauritu eragin zituen, horietako batzuk balaz. Barne ministerioak aitortuta, sei ordutan 5.000 gomazko pilota, 1.000 ke-poto, negarra eragiteko beste 1.000 bonba eta 130 bala erabili zituzten herritarren kontra hirian gertatu ziren istilu larrietan. Adituen batzordeak arrazoi nahikoa ikusi du Gizateriaren Kontrako Krimena izan zela esateko.

JORGE NAGORE

hainbat gertakizun izan ziren Iruñeko hirian, estatu aparatuen errepresiorako joera agerian utzi zutenak”, dio adituen batzordeak bere txostenean. Maiatzaren 1eko manifestazioa, adibidez, baimenduta egonagatik indarkeria handiz desegin zuten poliziek, eta hilabete berean “inkontrolatuek” istilu larriak sorrarazi zituzten Alde Zaharrean –kalez jantzita zegoen guardia zibil bat hil zen laban-kada batez–. Istilu horietan atxilotuak askatzeko itxialdia hasi zuten hainbat lagunek, eta hala, udaletxeko bigarren solairua okupatuta zegoela iritsi zen uztailaren 6a urte hartan. “Sanferminak biolentziaren zeinupean ospa litezke”, sutu zuen eltzea egunkariren batek.

Errepresioaren kontrako masa mugimenduak baturik


Joera askoz lehenagotik zetorren ordea. Adituen txostenak emandako datuen arabera, 1969. eta 1977. urteen artean Espainiako Estatuan manifestazioetan hildakoak gutxienez 47 izan ziren, horietako asko Euskal Herrian, eta bali-teke 50.000 lagun prozesatu izana zio politikoengatik. Urte haietan giza esku-bideen urraketa larriak ere jazo ziren: 1975eko salbuespen egoera, Monteju-rrako gertaerak eta Gasteizko martxoaren 3ko sarraskia 1976an, Amnistiaren aldeko astearen zapalkuntza 1977an... “1978ko Sanferminetako esku-hartzea neurrigabekoa eta desproporzionatua izan zen, berrogei urtez baino gehiagoz estatu mailan funtzionatzen zuen izaera errepresibodun egitura politiko eta polizialak planifikatua”, ondorioztatu du adituen batzordeak.

Espainiar Konstituzioa onartzeke zegoen, eta erreforma politikoak aurkari ugari zuen Euskal Herrian erregimenarekin haustura bilatzen zutenen artean. Hala, Adolfo Suarezek eta Rodolfo Martin Villak gidaturiko trantsizioko gobernuak arrakala demokratikoa borra eta odol bidez konpondu nahi izan zuen. Giro horretan erne zen “euskal jendarte anti-errepresiboa” deitu izan den masa mugimendua, besteak beste langile borrokaren bidez eta enpresetako asanbladetan artikulatua. Hegoaldeko lau lurraldeak inoiz baino gertuago zeuden elkarrekiko, amnistia nahiz autodeterminazioa aldarri hartuta, eta Nafarroa zen epizentro nagusietako bat, 1974ko abenduaren 11ko greba handian ere halaxe ikusi zen.

1978KO UZTAILEKO EGUN ODOLTSUAK

6 Osteguna. Txupinazoa Iruñeko udaletxeko lehen solairutik jaurtiko da, bigarren solairua okupatuta baitago atxilotu batzuen askatasuna eskatzeko.

8 Larunbata. Polizia zezen plazara sartzen da pankarta baten aitzakian. Istiluak hiri osoan. German Rodriguez hiltzen dute tiroz.



9 Igandea. Iruñeko kaleak txikituta esnatuko dira, poliziak hiria hartuta dauka eta haien irratietan agindu gordinak atzematen dira: “Indar guztiekin tiro egin, ez arduratu hiltzen baduzue!”



10 Astelehena. German Rodriguezen hiletetan 30.000 lagun. Poliziaren irratiko mezuek eta Iruñeko irudiek “akatsa” izan zela zioen bertsio ofiziala gezurtatuko dute eta Euskal Herri osora zabalduko dira.



11 Asteartea. Borroka eguna. Donostian (goiko irudian) poliziak Joseba Barandiaran astigartarra hilko du tiroz. Iruñeko peñek festak bertan behera utzi eta ikerketa herritarra abiatuko dute.

13 Osteguna. Tentsioa gora. Errenterian Miranda de Ebroko poliziaren asaltoko konpainia batek udalerria arpilatzen du, txikizioak eta lapurretak eginez.



14 Ostirala. Gaixoa ni ekitaldiaren ordez, manifestazio batek emango die amaiera Sanferminei.



Polizia udaletxeko plazan, Iruñeko eraikin nagusiaren atarian German Rodriguezen hilketa salatzeko jarritako kartaelaren aurrean. Hainbat egunez hiria indar armatuek okupatuta egon zen eta gobernadore zibilak ez zuen ezer egin errepresioa eragozteko.

Baina paradoxikoki, 1978an Nafarroa beste euskal lurraldeetatik bereizteko prozesu instituzionala martxan jarri zen: autonomia negoziatzen hasita zeuden bitartean, erreinu zaharra erregimen

frankistaren azken gotorleku bihurturiko Foru Aldundiaren eskuetan geratu zen. Ez da harritzekoa uztailaren 9ko goizaldean Nafarroako Diputazioaren Jauregia izatea liskarren jomuga nagusi;

baina eraikinari leihoak txikitzen lehenak ez ziren manifestariak izan, “Navarros hijos de puta!” oihukatuz tiroka aritu ziren poliziak baizik: “Amorrotuta eta ero moduan zebiltzan, sinpleki Nafarroa zen ororen kontra”, azaldu zuten peñek beren dossierrean. Eskarmentua eman nahi izan zioten subertsioari.

Eta horretarako prest zituzten autobusak, asaltoko konpainiak Euskal Herriko beste tokietara garraiatzeko, Errenterira edo Donostiara kasu. Azkeneko hiri horretan, Iruñeko gertaerengatik protestan ari zela hil zuten tiroz Aldapeta inguruan Joseba Barandiaran astigartarra, San Bartolome kaleko barrikada baten oinetan.

German Rodriguezen hiletetan Patxi Larraintzar apaiz borrokalaria eman-dako sermoia hobeto uler liteke fokua etorkizunetik zabaldua: “Demokrazia barregarri honen truku guztiak erabiliz, gure abiada eta arnasa ebaki nahi dizkigutela dirudi, nafar eta euskaldun guztien batasuna apurtu nahian”. 1976an Gasteizen bezala 1978an Iruñean, kontrolagaitza zitzaien herri boterea ito nahi izan zuten.



AURTEN ERE OROITARRIAN ZITA

Sanferminetako gertaeren 40. urteurrena dela-eta Sanferminak 78 Gogoan plataformak ekimen andana antolatu du. Urtero bezala, zita nagusia German Rodriguezen omenez hura hil zuten tokitik gertu dagoen oroitarrian izango dute, uztailaren 8an. Oroitarriak ibilbide gorabeheratsua izan du –ondokoa 1979ko argazkia da– eta gertaera haiek ez ahazteko sinbolo bilakatu da. Ekainaren 29an, 1978ko Sanferminak gogoratzeko monumentua jarri du Iruñeko Carlos III.a etorbidea eta Orreaga kalearen artean, Dora Salazar eskultoreak egina. Plataformak, bestalde, Txupin Etxepare saria jasoko du aurtten.

40 urteko zigorgabetasuna

Ezaguna da Martin Villa barne ministroaren esaldia, estatu indarkeria justifikatzeko: “Gurea akatsak dira, haiena krimenak”. Iruñeko gertaeren biharamunean bota zuen, espainiar telebista aurrean prestaturiko prentsaurreko bitxian. Egun batzuk geroago, Kongresuan aitortu behar izan zuen erantzule nagusia bera zela, baina beharrezko “zuzenketak” egin zituztela ere esan zuen. Poliziaren buruak lekuz aldatzeaz ari zen; haietako inor ez zen sekula epaitua izan. 40 urteko zigorgabetasunari hasiera eman zion esaldi horrekin ministro frankista ohiak.

Adituen batzordeak dioenez, 1978ko Sanferminetakoa hainbat sumariotan banatzeak ikerketa judiziala oztopatu zuen, “seguruenik hori zen bilatzen zutena”. Hala, kasua sumario bakarrean berriz irekitzea eskatu dute eta bere garaian egin ez ziren frogak eta dokumentazioa biltzea.

Ez da erraza izango ordea. Orduko hartan udaleko eta diputazioko ordezkariak sorturiko ikerketa batzordeen ondorioen berri ez da sekula jakin. Gobernadore Zibilak urte hartaz egindako memoria-rik ere ez da azaldu Madrilen dagoen Administrazioaren Artxibo Orokorrean. Bestetik, sumarioek gordetzen duten informazio guztia eskatu diote Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiari, baina honek oraindik ez du erantzunik eman. Ministerioen eta poliziaren eskuetan zeuden informe nahiz buletinekin gauza bera...

Justizia, egia eta aitortzaren alde urtez luzetan lan eskerga egin duen Sanferminak 78 Gogoan elkarteak sarritan eskatu du dokumentazioa desklassifikatzeko. Duela hilabete batzuk Nafarroako Parlamentuak eskari hori egin zion Espainiako Gobernuari, parlamentarien

ERANTZUKIZUNAK

1978ko gertaerak argitzeko egiaaren batzordeak erantzule posibleak dakartza bere txostenean.

Rodolfo Martin Villa Barne ministroa erantzule nagusitzat dute, “errepresio sistematiko eta orokortu baten egile nagusia da”. **Miguel Rubio Rubio** komisarioak eman zuen zezen plazan sartzeko agindua eta dokumentazio grafikoan eta testigantzetan “guztiz identifikaturik” agertzen da. Bere aginduak bete zituzten **Benito Pérez Vázquez** eta **Francisco Abellán Vicente** tenienteak ere zezen plazako irudietan ageri dira 40 polizia inguru gidatuz.

Fernando Avila García komandantea izan zen ekintza polizialen diseinatzailea. Nafarroara “mendeku” bila etorri zela adierazi zuen gertaeren aurretik. **César Jiménez Cacho** eta **Vicente Lafuente Ramírez** zerbitzu-buruek eman zituzten eta betearazi zituzten aginduak irratiz.



Martin Villaren prentsaurrekoa, 1978ko uztailaren 14an.

Horrez gain, adituen txostenak dio Logroñoeko erreserbako polizia armatuaren kapitainak erantzukizun larria duela, konpainia horrek eragin zituelako bala zauritu ugari eta German Rodriguezen heriotza.

Azkenik, **Ignacio Llano Cifuentes** gobernadore zibilak Ordena Publikoaren Batzorde Nagusian parte hartu zuen, baina ez zuen ezer egin batzorde horretako irizpideak betearazteko.

ia guztien babesarekin –soilik PP abstenitu zen–. Baina Espainiako Kongresuak ateak itxi dizkio aukera horri, kasu honetan PP, C's, baita PSOEren kontrako botoekin ere. Inpunitatearen hormak toki berean jarraitzen du.

Baina, 5.000 gomazko pilota, 1.000 ke-bote eta 150 bala ezin dira ezkutatu agiritegiko karpeta bat desagerrararaziz, are gutxiago hildakoak eta zauritu ugari eragin zituztenean. Jendearen lekukotasunak eta bizipenak dira frogarik sendoena, eta Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentazio Fondoak jadanik dozenaka elkarriketa dauzka bilduta gertaera horien inguruan. Adituen

ustez nahikoa argudio badago esateko 1978ko Sanferminetakoa “Gizateriaren Kontrako Krimena” izan zela, preskribitzen ez duen delitua. Iruñeko Udalarik ereila bat jartzea aholkatu diote, horretarako legitimatua dagoelako.

Sanferminak 78 Gogoan-ek, bere aldetik, nazioartera jo du eta salaketa jarri du Europar Parlamentuko Eskaearen Batzordean. Ekainaren 26an kasua azaltzeko Bruselan egindako agerraldian, duela 40 urteko zezen plazako argazki zuri-beltzaren kopia erraldoia paratu zuten plataformako kideek; lanean segituko dute irudi horri markoa jarri eta atzean zer zegoen argitu arte. ■

Ogiaren egia

Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
Zure momentu
zailetarako

Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otañui Gotzaina kalea, 27 - Oñati

TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com

BEGOÑA ZABALA, SF78-KO ADITUEN BATZORDEKO KIDEA

“Orain badugu ikuspegia esateko errepresio global bat egon zela”

Iruñera 1977an iritsi zen Begoña Zabala (Getxo, Algorta, 1950) eta lehen lerrotik bizi izan zuen zezen plaza barruan zein kanpoan 1978ko Sanferminetako poliziaren eraso. Abokatu lanbidez, gertaera haiek argitzeko adituen ikerketa batzordeko kide da eta alde juridikoa landu du. 70eko hamarkadatik mugimendu feministan buru-belarri aritutakoa, *Feminismo, Transición y Sanfermines del 78* liburua kaleratu berri du.

Judizialki kasua hainbat sumariotan banatzeak ikerketa oztopatu zuela diozue. Nahita egindako zerbait izan zen?

Sumarioak bananduta instruitzea ez da normala, erlazionaturiko hainbat gertaera daudenean aukera dago dena batzeko. Zergatik da garrantzitsua hori? Bost sumario daude –horietako hiru dira garrantzitsuenak, hildakoak eta zaurituak daudelako– eta ekintza polizialaren *continuum* bat egon zela agerian uzten dute, zezen plaza barruan hasi eta ondoren kanpoan ere bai, polizia-buru berdinen agindupean eta gobernadore zibilak ezer egin gabe.

Sumarioak bananduz beste irakurketa politiko-juridiko bat egin nahi izan da: polizia sartzen da plazara, eta “tur-bek” erreakzionatzean, beste gertaera bat dago. Guk sumario baten frogak beste sumario batean ere kontuan eduki eta gertatutakoari azalpen logiko bat ematea nahi dugu.

Frogak onartu ziren, baina ez ziren egin...

Frogen kontua ere iluna da oso, eta in-punitate handia erakusten du. Peñen ikerketa batzordeak ahozko frogak ugari aurkeztu zuen, eta horren ondoren idatzizkoak eskatzen hasten dira, txostenak eta abar; baina desagertu egin omen dira edo erreserbatuta segitzen dute. Polizia-buruek deklaratzeko ere eskatu zen, baina ez zuten halakorik egin hiru urte gerora arte...

Froga horiek 40 urteren ondoren balio dute?

Froga asko sumarioetan dago jadanik, guk ez dugu oraindik sarbiderik izan; peñen abokatuak bala-zorroak eta guzti aurkeztu zituzten... Zer balio izan dezaket? Dokumentaturik dagoen denak izan dezake balioa. Kuriosoa da, zeren eta beraiek [poliziak] egindako dokumentuak dira eta beraiek hartutako deklarazioetan oinarrituta.

Gizateriaren kontrako krimen izateak zer ekar dezake erantzukizunaren aldetik?

Nazioarteko zuzenbidearen arloa eramaten gaitu horrek. Akordio eta tratatuek definitzen dute zer den gizateriaren kontrako krimena, ez Estatuak, horrek egiten du interesgarri. Bereiztasunak ditu: herritarren gehiengoaren kontrako ekintza izatea, indar armatuak izatea babesik gabeko herritarrei eraso egiten dietenak... Emakume baten bortxaketa delitua da adibidez, baina emakume komunitate oso baten bortxaketa masiboa gizateriaren kontrako krimena da, errepresio eta askatasunik gabeko giro batean gertaturikoa. Estatuak derriortuta dago krimena ikertu eta pertsegitzera, baina ez badu egiten, badago foro bat hori zigortzeko.

Kereila jartzeko “momentua” orain dela diozue, zergatik?

Ez dugu esan nahi epea iraungiko de-

nik. Seguruenik ez dago aukerarik kereila bat jartzeko esanez “hau zauritu egin zuten, beste hori hil... eta ez da epaiketarik egon”. Erantzungo dute-na da preskribitu egin duela, beste askotan bezala. Baina momentu honetan badugu errepresio global bat egon zela esateko ikuspegia, eta 1978an agian ez ginen horretaz kontziente: Gasteizko martxoaren 3ko gertaerak, Madrileko abokatuen hilketa, Maia-tzaren Leheneko eta amnistiaren aldeko mobilizazioen errepresioa... Hori guztiagatik jar daiteke kereila, gizateriaren aurkako krimena izan zela esanez.

Frankismoaren krimenen kontrako kereila argentinarrak 1977ko Amnistiaren Legearekin egin du topo Espainiako Estatu-tuko auzitegietan. Kasu honetan gertaerak geroagokoak dira ordea...

1978koa ez dago amnistiaturik, jakina, beste kontu bat da epaileak preskribitu duela esatea. Kereila, normalean, zuregandik gertuen dagoen auzitegian jartzen duzu, gero helegiteen ondorioz nazioartera egin dezake jauzi. Hala ere, Argentinako kereila beste gauza bat da –Sanferminak 78 Gogoan ere pertsonatu da bertan– eta bere bidea darama. Guk kereila berria proposatzen dugu, mahai gainean jartzeko Sanferminetako gertaerak gizateriaren kontrako krimena izan zirela.

Desklasifikatu gabeko dokumentuak eta “desagertu” diren txostenak dau dela aipatu duzu. Kereila batek noraino egin dezake hori gabe?

Desklasifikatzea erraza da, dokumentazioa hor dago eta prozedura kontu bat da; edozein auzitegi, parlamentu edo gobernuak eska dezake. Gainera, ministerioaren ekintza ofizialak dira eta ez dut uste txostenetan egia osorik esango dutenik, alderantziz, euren errelatoa agertuko da. Baina jakin ditzakegu nahigabe ihes egindako gauza asko, haien walkie-talkietan grabatutakoak bezalakoak, inpunitate handiz aritzen baitziren. Eta oraingoz dauzkagun datuekin esan dezakegu aurrez prestatu-riko plan bat izan zela, herritarren eta orduko mugimenduen kontra.

Hautura mugimenduak zirela aipatu izan duzu. 1977 amaieran Iruñera iritsi zinenean, adibidez, Emakumeen Askapenerako Mugimendua (EAM) aurkitu zenuen.

1975ean mugimendu feminista oso erradikala eta politizatua sortzen hasi zen, diktaduraren kontrako borrokan zuzenean eta arlo guztietan parte hartzeko aukera ikusi zuena: eguneroko bizitzan, botere-harremanetan, kalean, festetan... Bateratze bat gertatzen da familietan, lanean, Elizan eta Estatuan dagoen dominazio patriarkalaren aurka. Horrek, beste mugimendu haustaile batzuekin aliantza sendoa osatzen du.

Liburuan festaz hitz egiten duzu, subertsio espazio bezala, feminismoak ere espazio hori konkistatu nahi du subertsioa aldarrikatzeko...



1976an Bizkaiko lehen emakume asanbladan hartu zuen parte Begoña Zabalak; hortik gutxira aldatu zen Iruñera eta han ere mugimendu feminista bizia aurkitu zuen, Sanferminetako gertaeren atarian.

FOKU / IÑIGO URIZ

Feministek diote: “Kalea gure ere bada, gaua gurea ere bada”, ordura arte emakumeentzat betoa jarrita baitzegoen. Festa oso garrantzitsua da, tradizioa aldarrikatzera irten beharrean –jende askok uste duen moduan– subertsioa aldarrikatzera irteten baitira. Garai haietan *El espacio de la fiesta y la subversión* liburua argitaratu zen, Iruñeko Alde Zaharraren azterketa bat, eta bertan ikusten da nola ari ziren kaleak festarako okupatzen, arau sozialak eta loturak hautsiz; feminismoak bat egin zuen horrekin.

Zer gertatu zen 1978an peñen “amabitxi” delakoekin? Hor ere pankarta izan zen tartean...

Peña gehienetan gizonezkoek bakarrik

hartu zezaketen parte, eta urtean behin *madrina* edo “amabitxia” aukeratzen zuten emakume guztiak ordezkatzeko, estereotipo ohikoak jarraituz (ederra, apaina...). Urte hartan, uztailaren 1eko peñen festan amabitxiaren aurkezpenean egin zen zezen plazan. Pankarta pila bat zegoen, amnistia eskatuz edo borrokan zebiltzan preso komunen alde. Bada, EAMekoek euren pankartatxoa ere atera zuten: *Madrinas kanpora!* esaten zuten. Irudi patriarkal horren kontrako mezua zen, urte osoan debekaturik izan ostean emakumea desfile bate-

ra eramaten baitzuten mantelina soinean zuela. Alardean egun gertatzen dena ez da oso ezberdina.

Zer ondorio izan zuen 1978ko oldarraldiak, festari eta feminismoari dagokionez?

Boterearen mezua izan zen atzera egin behar zela, ororen gainetik festa behar zela. Esan nahi zuten gizonezkoak kalera irten eta zortzi egunez mozkoitzen diren festa eredu horretara itzuli behar ginela, erabat maskulinoa den katarsia. Politikak ez du espaziorik Sanfermin horietan.

Ondoren errepresioa dator, eta hasten dira [Germanen heriotza gogoratzeko] manifestazioa debekatu eta isunak jartzten. Beste jende bat ere hasten da esaten ahaztu behar dela, lehengo kontuak direla, deserosoa da festetan *policía asesina* oihukatzea... Feminismo asko agertu ziren, baita ikusi nahi ez direnak ere, tartean zuriz eta gorrix txukun jantzita doan hori, gizonezkoek nahi dutena egiten duten bitartean. Horretara iritsi gara eta orain buelta eman behar diogu. ■



A person is sitting on stone steps, with their hands clasped. They are wearing a blue jacket and blue jeans. The background is a rustic stone wall. The text is overlaid on the right side of the image.

Sara Majarenas // Felix Arrieta

“SALBUESPEN LEGEDIA ALDE BATERA UTZI BEHAR DU ESPAINIAKO ESTATUAK”

Sara Majarenas (1980, Donostia) eta Felix Arrietarekin (1982, Donostia) bildu gara. Sarek bultza duen *Orain Presoak* dinamikan parte hartzen ari dira. Lehena preso ohia eta indarkeria matxistaren biktima, orain bi hilabete askatu dute; bigarrena, Deustuko unibertsitateko irakaslea da. Lau aldarrikapen zehatzen inguruan babesa bilatzen ari dira eta urriaren 20rako manifestazioa deitu dute Bilbon. Espainiako Estatutik aldaketak etor litezkeela sumatzen den egunetan mintzatu gara beraiekin.

Elkarrizketa: Lander Arbelaiz
Argazkiak: Dani Blanco

Ekainaren 3an Orain Presoak dinamika aurkeztu zenuten Bilbon. Nola amaitu duzue hemen aurpegia ematen eta zergatik?

F. Arrieta: Ekimenaren berri ematera hurbildu zitzaizkidanean, interesgarria iruditu zitzaidan momentuagatik, jendeagatik eta inguruan sor zitekeen dinamikagatik. Defendatzeko duguna ez da berria niretzat, betidanik hala pentsatu izan dut, baina ekimenak bultzatzen duen orain publikoki adierazteko pausoa ematera.

S. Majarenas: Bi hilabete daramatzat kalean eta konpondu behar den egoera honek larritzen nau. Parte hartzeko aukera eskaini zidatenean baiezkota eman nuen, identifikatua sentitzen naizelako eta fase berrian eman behar diren pausoak emateko, gizarte zibila era zabalean inplikatu behar garela uste dudalako. Jendarte osoaren konpromisoa behar dugu, ez gutxi batzuen eta hemen jendarte zabalaren aldarrikapenak daude batuta.

Hainbat pertsona ezagun batu zarete ekimenean. Orain gutxi ikusi dugu ETaren desarmea desblokeatzen gizarte zibilak jokatu duen paper garrantzitsua Ipar Euskal Herrian. Gizarte zibilaren eskuetan al dago euskal presoaren eskubideen aldeko borroka?

S. Majarenas: Lapurdin, Behe Nafarroan eta Zuberoan kristoren adibidea eman digute, aurrerapauso handia egin dute. Hemen eta orain, espetxeetako ateen giltza ez da gurea, baina jendarteak zer nahi dugun ozen badio, aldarri garbiekin, ni uste emango direla pausoak norabide horretan.

F. Arrieta: Dena da osagarria. Gure kasuan, argi dut antolatzen ari garen mobilizazioa bera baino garrantzitsuagoa dela prozesua. Eta prozesuaren barruan nik bi gauza bereiziko nituzke: batetik deialdia egiten dugunok, gizarte zibila deitu diozun hori martxan jartzea, ahalduz; eta bestetik, gai hau agendan jartzea eta gizartearen zabaltzea. Zorritzarrez, faktore anitzengatik, presoaren auzia ez dago euskal gizartearen lehen kezken artean eta hor sozializazioa egin behar dugu. Paraleloan etorri behar dira erakundeek eta alderdiek bide honetan eman ditzaketan pausoak. Guk egiten duguna xaxatze lana da, eta horretarako urriaren 20ko mobilizazioa garrantzitsua izango da.

Adierazpenean lau eskaera egiten dituzue. Batzuk aldarri zaharrak dira, beste batzuk berriagoak iruditu zaizkit. Lehen, begi bistakoa izan liteke, presoaren dis-pertsioa amaitzea.

F. Arrieta: Legedian salbuespenezko neurri gisa jaso zuten. Giza eskubideen aldetik ez dago nondik heldu, eta orain gainera, lehen argudiatzen zituzten baldintzak ere ez dauzkate egoera justifikatzeko. Dispersioa amaitu behar dela eskatzen dugu; ez momentua delako, momentua beti izan baita. Orain, gainera, borroka armatuaren argudio hori ere desagertu egin da. Euskal gizartearen oso zabaldua dagoen iritzia da eta guk ere horrekin bat egiten dugu. Amaitu beharra dago.

S. Majarenas: Ez dago aitzakiarik. Senideei aplikatzen zaizen zigor erantsia da. Hori salatzeak kristoren dinamika piztu dira azkenaldian, motxiladun haurrena adibidez. Gainera, preso gisa ere gogorra da urrun egotea, gogorra da senideek jasan behar dutena ikustea.

Larriki gaixo dauden presoak. Hitzek hitz honela diozue: "Egun gutxiko bizia geratu aurretik, gaixorik dauden presoek behar bezala artatzeko eskubidea dute, hemen eta orain". Zer esan nahi duzue horrekin?

S. Majarenas: Preso gaixoak askatu behar dituztela, noski. Hori ere legediaren barnean dago. Egoera larria da, batzuk orain gutxi hil dira barruan eta beste batzuei egun gutxi geratzen zaie.

F. Arrieta: Nork eta nola erabakitzen du zer diren egun gutxi? Eztabaida horretara heltzea bera ere oso larria da. Etika eta giza eskubideen definizioa baliatu behar ditugu. Humanitatea mahai gainean jarri eta legalitatea aplikatzeko eskatzen dugu.

Zigorren batuketa amaitzea ere eskatzen duzue. Gaiak gehiegi ez dakienarentzat, zer gertatzen ari da ba zigorrekin?

S. Majarenas: Estatu batean zigorra betetzen duzunean, beste estatu batean ezin zaituzte berriz ere gai beragatik zigortu. Hego Euskal Herrian, ilogikoki, hala gertatzen da baina. European gertatzen den leku bakarretakoa dela uste dut. Preso jakin batzuek Frantzia bete izan dute zigorra, eta Espainiaratzen dituztenean, berritza zigortzen dituzte delitu beragatik. Jarrira dago helegitea Estrasburgon. Arrazoiak emango balute,



preso kopuru handia aterako litzateke kalera. Eta berriz ere, legediaren barruan, hori baitio legeak.

F. Arrieta: Salbuespenekoa izan den legeriaren aurrean, European bateratua izan behar lukeen jurisprudentziaren aplikazioa eskatzen dugu. Ez dugu ezer arrarorik eskatzen, nahiz eta batzuentzat hala dirudien. Espainiak bere legea beteko balu pauso handia emango luke Euskal Herriko gatazkan konpontzeko geratzen den auzi garrantzitsu batean. Salbuespeneko legedia alde batera utzi behar dute.

Ikusten da lau aldarriek komunean dutela salbuespeneko legedia aplikatzeari uzteko eskatzea. Laugarren eskaera da lehen gradua amaitzea.

S. Majarenas: Espainiako Estatuan 50.000 preso inguru daude; horietatik 300 daude lehen graduan, eta horietatik 180 euskal preso politikoak dira. Erdia baino gehiago. Euskal preso politiko gehienak lehen graduan daude. Aurre-



koan [Jon] Iñarrituri entzun nizkion da-tuok txundigarriak iruditu zitzaizkidan, preso nengoela ez nekizkien.

Zer da espetxean lehen graduan egotea? Zer esan nahi luke hori amaitzeak?

S. Majarenas: Bizi baldintzak askoz go-goragoak dira, isolamenduan zaude. Salbuespenezko kasu batzuetarako dela dio legeak, "jarrera txarra" duten presoentzat, gatazka oso biolentoak gertatzen direnean aplikatzen dela lehen gradua. Euskal preso politikoei ez zaie hala aplikatzen, sistematikoki baizik, guztiei. Horrek kalte handia egiten du, ezin baita graduz aurrera egin. Bigarren graduan, adibidez, baimenak eska daitezke eta legeak dioen gisan eboluzio bat egon daiteke hirugarren pausorantz. Eta behin hor, beste neurri batzuek hitz egiten has gintezke. Nire kasu propioan, lehen graduan nengoen, eta gero Alcobendaseko (Madril) pisura eraman gintuztenean, bigarren graduan eraman ninduten, hor malgutasun handiagoa

dago. Elkarbizitzarako bidean, presoak etxera ekartzeko bidean eman beharreko pausoetan, gradu aldaketa egon behar du derrigor.

Pentsaezina da giza eskubideez hitz egitea, eta 20 urtez isolamenduan edukitzea presoak, leku askoz txikiagoan, patioa askoz ordu gutxiagorekin.

Orain Presoak kanpainaren atxikimenduen zerrendan PSEko eta PSNko bi zinegotzi ohi daude. Presoekin lotutako eskaerak plano humanitariotik planteatzek –eta ez politikotik– atxikimenduak zabaltzen laguntzen du?

F. Arrieta: Beharko luke. Plano ezberdinak dira. Bat da gizartean eta gizartearekin egin daitekeen lan hori. Batzuk elkartu gara honetan aritzeko orain, eta oxala gehiago lotuko bagina. Era berean, hori beste prozesu batzuek lagundu behar dute. Eusko Legebiltzarrean lortutako akordio hori, Sanchez Espainiako presidentearen hitzak... norabide onean doaz, ikusiko dugu noraino heltzen di-

ren. Maila politikoan horrek bide bat izango du, eta maila sozialean, bide hau zabaltzen saiatu behar dugu.

Espainiako presidentea aldatu denetik mugimenduak daude. Zer usain?

F. Arrieta: Itxaropentsua. Nik askotan esan izan nuen noizbait presoak gerturatzekotan hori gobernu kontserbadore batekin izan beharko zuela, PP oposizioan askoz okerragoa baita agintean baino. Hori dagoeneko ezin da pasa. Gobernuak pausoak emateko borondatea duela dirudi. Zuhurtzia beharrezkoa izango da, eta ikusi egin beharko da PPK zein jarrera hartzen duen. Semperek behin edo behin esan zuen prest leudekeela pausoak emateko, baina PP orain Ciudadanosekin diskurto lehian dago.

S. Majarenas: Hitzetatik ekintzetara pasa behar dira. Beldurra ematen dit elektoralista ote den pentsatzeak. Jendartean *kalatu* du eta albiste hauek garrantzia hartu dute jendartean. Bidea prestatzen ari dira. Grande-Marlaskak behin baino gehiagotan esan du "ez daitezela hautsak harrotu gai honekin". Zuhurtziaz ikusten ditut. Ez dugu ahaztu behar barruan dauden pertsona eta hauen inguru zabal batez ari garela. Saldu izan den eta bete ez den esperantza guztia oso gogorra egin zait niri urteetan.

Urriaren 20an manifestazioa antolatzen ari zarete. "Herri honetan inoiz egin den manifestaziorik handiena" deitu diozue...

F. Arrieta: Lehen esan dut, tamaina ez da hain garrantzitsua, bidea baizik. Gai bagara Bilboko manifestaziora iritsten garenerako orain arte aktibatu ez diren pertsona eta sektoreak aktibatzeke, hori izango da emaitzarik politena. Gero manifestazioan dauden 40.000, 60.000 ala 100.000 niretzat ez da hain garrantzitsua.

S. Majarenas: Nik uste esan nahi dugula handia, zabaltasunean ere.

F. Arrieta: Hori da, pluraltasunean indarra egin behar dugu. Noski, jendetsua izatea nahi dut, ez dezatela balio nire hitzek desmobilizaziorako.

S. Majarenas: *Orain Presoak* dinamikan diogu korapiloa askatzeko unea heldu dela, aspalditik zegoen eta beharra. Orain da unea guztiok batu eta guztiok ozen esateko nahi duguna. Herri osasuntsu bilatzeko behar dugu. Beste gauza batzuk ere bai, baina hau ere bai. ■

Nola gainditu “gu-haiek” diskurtsoa euskara oinarrizko hizkuntza izanda

Petra Elserrek hitzaldia eskaini zuen Hernanin. Etorkinen eremuaz eta euskaldunen eremuaz aritu zen hizketan. “Gu” eta “haiek” diskurtsoa alboratu eta bi eremuek euskal komunitate sendoa bat egitea irudikatzen du, hizkuntza-ardatza euskara dela. Jatorriz alemaniarra den Elserrek hamabost urte daramatza Euskal Herrian. Banaiz Bagara elkarteko zuzendaria da, atzerritarrak euskal mundura erakartzeko bideak lantzen ditu, lan mundua zubi erabilita.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: IDOIA ZABALETA / FOKU

Petra Elserren hitzaldia Hernaniko Euskara Ari Du elkarte antolatzaileak sarean ipini du Youtuben. Hitzaldiaren laburpena ekarri dugu hona.

Eremu komuna, alegia, denok bat egiten dugun eremua

Hiru eremuz hitz egingo dut: eremu komunaz, euskaldunen eremuaz eta etorkinen eremuaz. Has gaitezen lehenengoarekin. Abiapuntu moduan hiru gauza esango ditut. Bat: Norbera alda daiteke, nahiz eta 60 urte edo 80 urte eduki. Bizitza osoan alda gaitezke. Bi: Gizartea ere alda daiteke. Hiru: Komunitate euskalduna nola eraiki pentsatu behar dugu. Guk nahi dugun gizartearen irudikapena egin behar dugu. Nola egon nahi dugu bost urte barru? Euskal komunitatea ez dadila izan gizartearen barruan dagoen komunitate txiki bat erdal komunitate handi batez inguratuta.

Euskaldunen eremua

Ondoko ezaugarriak hartu behar ditugu kontuan euskaldunen eremuaz.

- Komunitate itxia dela esaten da, berea babesteko itxi da, ohikoa da “gu” eta “haiek” erabiltzea. Nire lanean asko entzuten dut: haiek asko elkartzen dira,

haiek zapia daramate, haiek beti meskitara doaz... Beldurretik eta arrotasunetik, distantziatik, hitz egiten du jendeak. Nahiz eta “etorkinak” eta “bertakoak” kale berean bizi, “gu” erdian eta “haiek” periferian ezartzen ditugu.

- Euskaraz egiteagatik txalotzen dira atzerritarrak: “Casablancan jaio arren ederki egiten du euskaraz Mohamedek”. Ez genuke esango: “Casablancan jaio arren ederki egiten du gaztelaniaz Mohamedek”, ezta? Gaztelaniaz egitea normala da, euskaraz egitea ez. Hizkuntza berezi moduan tratatzen dugu.

- Seme-alabek ikasiko dute. Eta haien gurasoek? 40-60 edo urte gehiagoz biziko dira eta haiek ez dute ikasiko? Ez dauka logikarik. Adibidez, emakume hegoamerikarrak seme-alabak jatorrizko herrialdean utzita datoz, baina agian hamar urtez hemen arituko dira lanean. Ez dute euskaraz ikasiko?

- Hizkuntzaren ikasketa akademiaren esku uzten da, euskaltegien esku. Kanean ez beste nonbaiten ikasiko duzu eta gero niregana etorritakoan euskaraz egingo dugu. Gizarteak ez du ardurarik hartzen ikasketa prozesuan; euskaraz egiten lagundu, poliki hitz egin... Ez, adituek irakatsiko diote hizkuntza.

Etorkinen eremua

1960-1970eko urteetan etorritakoez ari gara, baita gaur egun datozen ere. Ohar bat egingo dut. Zama psikologiko handiarekin datoz, atzeritik datoz, beldurtuta, larrituta, behar batzuekin askotan... Zentzu horretan, eremu hau ezin da parekatu euskaldunen eremuekin. Hori esanda, azpimarratu behar da euskaraz bizi nahi duenarekin erdaraz egiten duenak bestearen hizkuntza eskubideei uko egiten diela; izan administrazioa langilea, medikua edo kallean ordua galdetu dizuna. Gerta daiteke etorri berriak ez jakitea hemen bi hizkuntza hitz egiten direla, baina behin hori jakinda arrazoi asko eman daitezke euskaraz ez egiteko. Hala ere, hizkuntza eskubideak ukatzen ari dira.

Batzuek bizitza osoan euskararen aldeko diskurtsoa izaten dute, inoiz ezer aldatu gabe. Jendeak politikoki zuzena zer den badaki eta hala dio: “Jakin nahi-ko nuke!”, “Pena, ez dakit!”. Bestelakoak ere badira, “no me interesa el euskera”, “háblame en castellano”...

“Hemengoek ez dute ikasten”. Diskurtso hori etorkinek eta besteek ere badute. Hori egia bada, galdera da: Nor da hemengo? Euskaraz dakiten 100 sene-



galдар bildu eta kale saltzaileen baldintzez jardunaldiak egiten baditugu, nor da hemengoa? Senegaletik etorri dira eta euskaraz ari dira.

Eta atal honekin bukatzeko, atzerritar euskaldunok ardura dugula uste dut. Euskara maila jakin bat daukatenak, nik ezagutzen ditudanak, euskaldunen bikotekideak dira. Bikotekide horiek rol oso garrantzitsua jokatu dezakete eremu komuna deitu diogun horretan kokatzeko.

Islama euskaraz ere bada

Eta orain nola egingo ditugu aldaketak batekoek eta bestekoek eremu komunean bat egin dezagun? Biek egin behar dugu ahalegina, bestela “gu-haiek” diskurtsoa mantenduko da. Adibidez, batzuek egin dute ahalegina, euskal-

Petra Elser: “Oso garrantzitsua iruditzen zait espazio erdi pribatu-erdi publikoa irekitzea. Alegia, bazkari-afari, mendi irteera, eskolako gurasoen bilera eta txango, auzoko jaiez ari naiz. Ahalegina egin beharko genuke horrelako guneetara beste herrialdeetatik etorritakoak gonbidatzeko”.

tegira joan dira eta euskara ikasi dute. Pakistandarrek edo marokoarrek kiroldegian edo kalean euskaraz egiten dute, baina haien lagunak ez dira aldatu, “zu hor eta ni hemen” mantentzen da. To-losako meskitako lehendakariak esan zidan uste zuela euskara ikasita ateak irekiko zitzaizkiola, baina ez zitzaiola hala gertatu.

Beraz, zein dira nire proposamenak “gu-haiek” diskurtsoa gainditzeko?

Oso garrantzitsua iruditzen zait espazio erdi pribatu-erdi publikoa irekitzea. Bazkari-afariez, mendi irteerez, eskolako gurasoen bilerez eta txangoez, auzoko jaiez, ari naiz. Ahalegina egin beharko genuke horrelako guneetara beste herrialdeetatik etorritakoak gonbidatzeko. Eta ez naiz ari egun bateko ekintzez, hau da, auzoko afrikarrek jaietan danborra jotzeaz. Agian afrikar horiek auzoko jaiak antolatzeko bileretara joan behar dute, eta bilerako afarira ere joan behar dute.

Atzerritarrek ikusgarri egitea garrantzitsua da, eta bereziki atzerritar euskaldunak. Euskarari eta migrazioari buruz hitz egiteko ez, bestelakoez hitz egin dezatela. Euskaldunak ulertu behar du islama euskaraz ere bada-

goela, eta etorkinak ikusten badu bere eremuko bat euskaraz ari dela errazago irudikatuko du denok euskaraz arituko garen eremu komuna. Ez du pentsatuko: “Horiek euskaldunak dira eta gure eremuan berriz erdaraz egiten dugu”.

Hizkuntza mailaren balioa ikusgarri egin behar dugu. Zerbitzariak edo adinekoaren zaintzaileak euskaraz lau gauza esaten jakiteari balioa eman behar zaio. Batzuk euskaltegira joan gabe kalean ari dira euskara ikasten eta hori lorpen ikaragarria da.

Katalunian ikasi nuen Europako herriak ez direla inoiz gehiago zuriak izango, kolore eta jatorri guztietakoak izango dira. Bakoitzak bere hizkuntza ekarriko du, eta etxean erabiliko du. Denok lotuko gaituen hizkuntza euskara izatea da kontua. ■

BABESLEA: **LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA**





Badator...
LEZON EUSKARALDJA
lantzzen hasi gara...



Lezoko Unibertsitateko Udala

DANIEL BERNABÉ

“Langile-klasea identitate-kontu batera murriztua gelditu da dibertsitatearen merkatuan”

Daniel Bernabé (Madril, 1980) idazle eta kazetaria elkarriketatu dugu argitaratu berri duen *La trampa de la diversidad* (Akal, 2018) liburua dela eta. Bi hilabeteen hirugarren edizioa du dagoeneko, eta zalaparta handia, eztabaida biziak piztu ditu sareetan, jorratzen dituen gaiak jakin-mina eta azkura eragiten dituzten seinale.



Maria Colera Intxausti
@bizialairaun

Postmodernismoaren ondorioen inpugnaziotzat har daiteke zure liburua. Zuk nola definitzen dituzu Fredric Jameson-ek kapitalismo berankorraren logika kulturaltzat daukan postmodernismoa eta haren ondorioak?

Filosofiaren eta politikaren alorrekoak diren kontzeptu horiek handi samarrak izan daitezke niretzat, idazle hutsa naizen aldetik. Postmodernismoak gure gizartean eta gure jardun politikoan dituen ondorioak aztertu nahi izan ditut. Postmodernismoa garai baten espiritu modukoa bihurtu da eta kontua ez da hainbeste postmodernistatzat jotzen diren autoreek beren liburuetan esan zutena, baizik eta neoliberalismoak nola erabili zituen liburu eta teoria horiek marxismoaren espiritu unibertsalaren kontra jotzeko eta ezkerrean zalantza etengabea txertatzeko, eragotzi nahian XX. mendean arrakasta izan zuten molde batzuk errepikatzea, zeintzuek iraultzak ekarri zituzten eta herriak boterea hartzea.

“Neoliberalismoan dibertsitateak merkatu itxura hartzen duenez, berezitasun identitarioak balioa eransten duela” diozu, eta zapalkuntzen arteko lehia bat gertatzen dela. Zein zentzutan?

Lehengoan artikulu bat irakurri nuen “haurdunaldi subrogatuari” buruz. Bertan praktika horren alde zegoen pertsona bat aurkezten zitzaigun: ez-binarioa, beltza, ijitoa, judua eta “langile-jatorrikoa”. Alegia, badirudi pertsona bat zenbat eta espezifikagoa izan, orduan eta eskubide gehiago dauzkala, kasu honean emakume pobre bat esplotatzekoa eta ume-ekoizle bihurtzeko.

Landu dudan beste gai bat da 1970eko hamarkadatik aurrera lausotuz joan zirela XX. mendean bat egin zuten hiru identitate sendoak –erlijiosoa, klaseari dagokiona eta nazionala–. Basamortu hori zerbaitekin bete behar izan zen, eta zerbait hori klase ertain aspirazionala izan zen. Ez da benetako klase ertaina, denok izan nahi dugun identitate kultural kolektibo bat baizik. Klase ertain as-





pirazional hori oso homogeneizatzailea da berez, eta, hala, jende guztiak sentitzen du bere ezaugarri espezifikoak gehitu behar dituela dibertsitatearen merkatuan lehiatu ahal izateko. Azkene-rako, nahastu egiten dira bizi-estiloak eta identitate politikoa eta ez dakigu zertaz ari garen, ideologiaz edo hobby batez.

Zer pentsatzen duzu indignadismoaz eta biktimismo nartzista indibidualistan oinarritutako "aktibismoaz"?

Aktibistak izanik, beren xedeak lortzeko artikulazio hori erabiltzen duten pertsonak iruditzen zaizkit kalte-tuenak hemen. Zeren, egia bada ere hasiera batean arreta handia piztu dezaketela beren inguruan, azkenean, badirudi horixe dela haien xede bakarra, hau da, ikusgarritasunaren merkatuan lehiatzea eta eztaba-ida publikoaren erdigu-nean egotea, eta ez jardun politiko zehatz bat egitea arazo zehatz baten inguruan.

Haurdunaldi subrogatuari buruz aipatzen nizen artikuluan agertzen zen pertsonari buruz, adibidez, esaten zen "langile-jatorria" zeukala. Horrelako gauzetan ikus dezakegu nola murriztu duten langile-klasea-ekoizpenari lotutako kategoria bat zena berez, identitate baten bidez ere azaleratzen zaiguna, jakina-identitate-kontu hutsera; eta nola identitate sozial guztiek parteka-

tzen zuten hori, langile-klasekoak izatea alegia, beste identitate bat bihurtu duten. Horixe da aurkitzen dugun arazo handi bat: ahaztu egin zaigula gehien-gehienek langile-klasekoak garela, estatistika-kontu hutsagatik.

Esaten duzu "neoliberalismoak ez duela emakumeen mugimendua fagozitatze-ko aukera galtzen utziko eta desaktibatuta baina dibertsitatearen merkatuan lehiatzeko potentzial handiarekin itzuliko duela".

Martxoaren 8an, adibidez, artikulua bat publikatu zuen aldizkari batek: "Martxoaren 8an jantzi behar dituzun kamisetak", zeukan izenburuan. Alegia, ezinbestekoa duzula arropa hori janztea feminista izateko. Mangok eginak ziren lelo feministak zeramatzen kamiseta horiek. Eta, aldi berean, beste albiste batek esaten dizu Mangok langile bat kaleratu duela haurdun zegoelako; eta bere kamisetak egiteko siriar errefuxiatuak erabiltzen dituela, esklabotza-bal-dintzetan.

Horren aurrean, haxe litzateke Twitterreko ohiko erreakzioa: "Haur-esplotazioaren errua feminismoarena dela esaten ari zara". Ez, esaten ari naizena da kapitalismoa ez dela ergela, ia dena zapuztu digula, eta feminismoarekin ere saiatuko dela. Ez dute klase-feminismoa edo emakumeen zapalkuntzaren egiturazko oinarrien kontra doan feminismo borrokalaria utziko, noski. Zerbait leuna eta atsegina, indibidual eta deklaratio-ba bihurtzen saiatuko dira. "Feminista naiz feminista naizela diodalako". Ez ba, feminismoa jardun politikoa da. Hitzak baino ekintzak behar dira: zure antzera pentsatzen duten beste pertsona batzuekin elkartu eta zerbait egin beharko duzu.

Gaia zertxobait aldatuz, zein iruditzen zaizu dela kulturaren eginkizuna?

Esparru politikoan legitimitateak sortzen diren substratua da kultura. Bote-re soila zakarregia gertatzen zaio jende gehienari besterik gabe onartu edo errespetatzeko, eta, hortaz, forma kultural batzuk behar dira hura onargarri bihurtzeko. Horixe da kulturaren eginkizun garrantzitsuenetako bat politikaren alorrean, eta horregatik jotzen dira zentzuzkotzat aukera politiko batzuk eta beste batzuk, ondo arrazoituta egon arren, eta historiako zenbait unetan erabilgarri agertu den corpus teoriko bat

izan arren, gauzatu ezintzat hartzen dira nagusiki. Onargarria dena zedarritzen digu kulturak, zer gelditzen den harresiaren barruan; eta zer harresitik kanpo.

Gertakari kulturalak garrantzi handia hartu du azken boladan, baina azkeneko ematen du kulturala dela axola duen gerra bakarra. XX. mendean, aldiz, gauzak egitean oinarritzen zen politika. Orain badirudi egin nahi duguna adierazte hutsagatik gertatu egingo dela. Kulturalari eta errepresentazioari lotutako gatazka horietako bat mahai gainean jartzen den bakoitzean, galdera hau egin behar dugu: "Administrazio publikoak zenbat diru inbertituko du egitasmo horretan?". Kanpainak egitea primeran baitago; baina oso ondo dago, halaber, soluzio zehatzak jartzea.

Zer dira "gerra kulturalak"? Non kokatzen dituzu eta zein da haien eginkizuna zure ustez?

Iruditzen zait AEBetako kontua direla gerra kulturalak. Europako testuingurura ekarri ditugu baina negozio txarra direla uste dut: politika soilik alor sinbolikoan mugitzearen emaitza dira, ekonomiaz arduratzeko aukera eskuinaren esku utzi. Ekonomia posible bakar bat dagoela eta ekonomia kudeatzeko modu bakarra dagoela onartzen denez, azkeneko ematen du auzi kultural horien inguruan borrokatzea baino ez zaigula gelditzen. Espainiako Estatura Zapateroren gobernuarekin iritsi ziren gerra kulturalak, ekonomian eskuindarra zen gobernu horrek itxurak egin behar baitzituen ezkertiarrek izaten jarraitzen zuten bere boto-emaleen aurrean.

Eta zer deritzozu "apropiazio kulturala" kontzeptuaz?

Kontzeptu hori ere AEBetatik iritsi zaigu, hein handi batean. Populazio afro-amerikarrak sortu zuen, ikusirik zurien esku dagoen sistema kapitalistak nola bereganatzen zituen etengabe beraiek sortutako erresistentzia kulturalak, beren ezaugarri bereziak, zapalkuntzari aurre egiteko eta talde gisa kohesionatzeko zeukaten modua..., zertarako eta



» "Kapitalismoa ez da ergela, ia dena zapuztu digu eta feminismoarekin ere saiatuko da. Ez dute klase-feminismoa edo emakumeen zapalkuntzaren egiturazko oinarrien kontra doan feminismo borrokalaria utziko. Zerbait leuna eta atseгина, indibidual eta deklaratioa bihurtzen saiatuko dira"

» "Horixe da egungo aktibismoaren arazo larrienetako bat: egiturazko baldintzak guztiz baztertu eta gero, xehetasunetan jartzen duela arreta guztia"

ikusarazteko sistema jatorra zela eta beraiek zentzuzkoak.

Gure esparrura ekarrita, kontzeptu hori maila mikroan erabiltzen da batzuetan, modu neurritz kanpo erabili ere. Eta horixe da egungo aktibismoaren arazo larrienetako bat: egiturazko baldintzak guztiz baztertu eta gero, xehetasunetan jartzen duela arreta guztia, sistemaren funtzionamenduen gaineko ikuspegi orokorra zeharo ahaztuta. Logika postmodernoaren barruan dena hauteman ezina zaigunez eta konplexuegia gertatzen denez, ba, orduan, espezifiko den horretan jartzen dugu arreta.

Ilean rastak egitea apropiazio kulturalizat har dezake-

gu? Ba, ez dut uste Jamaikan bizi den jendeari asko axola zaienik Cuencako gizon batek zer egiten duen. Arazoa da elementu arrazistak ez direla soilik kulturalak, gertakari ekonomiko baten adierazpide kulturala baita arrazismoa. Talde sozial eta etniko batzuk esplotatu beharra daukatenez gero, esplotazio hori bidezkoa dela pentsarazteko asmatu zuten pertsona batzuk gure azpitik daudela, eta hortik sortu zen supremazismoa.

Azkenik, egokia iruditzen al zaizu ilustrazioaren, sozialismoaren edo modernitatearen egitasmoak etnozentziko edo eurozentrikotzat jotzea?

Garapen historikoaren ondorioz, XIV. mendean aldaketak arabiar munduan gertatu ziren bezala, XVIII. mendetik aurrera aldaketak Europan gertatzen hasi ziren. Horrek ez du esan nahi iraultzari buruzko ideiak soilik mendealdarrak direnik. Ideiek duten gauza ona da, onak badira, ez direla inoren jabetzakoak; eta gizadiarentzat erabilgarriak badira, edonork aprobetxatu ditzakeela. Zentzu horretan, sozialismoaren ideia gizon alemaniar batek formulatu zuen arren, ez dut uste Bolivian nekazariak gobernuaren kontra altxa zirenean, pentsatzen ari zirenik alemaniarrek ezer inposatu zietenik, baizik eta ideia on bat jaso zutela, eta beren testuingurura ahal zuten moduan egokitzen ari zirela. ■

MEATZEETAKO HARRI BITXIAK



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazuastabarrena

Cork (Irlanda), 1837. Mary Harris Jones (1837-1930) ekintzaile sindikalista, gerora *Mother Jones* izenez ezagun egingo zena, jaio zen. Txikitan, familia-rekin batera Ipar Amerikara joan zen, Irlandako Gosete Handitik ihesi. AEBetan irakasle eta jostun lanetan aritu zen, baina 1867an senarra eta seme-alabak galdu zituen sukar horiaren erruz, eta handik aurrera langileen eskubideak –batez ere meatzarienenak– defendatzen lan egingo zuen: grebak antolatu zituen eta, besteak beste, Munduko Industria Langileak erakundearen sortzaileetako bat izan zen. *Agitatzaile guztien amona* ezizena ere irabazi zuen azken urteetan. Baina agitatzaile guzti guztiak ez zituen babestu. Sufragistak, esaterako: emakumeen bozkatzeko eskubidearen aurka baino, mugimendu sufragistari hartzen zion kutsuaren aurka zegoen. Klase altuko emakumeen kontutzat zeukan eta boto eskubidea emakume langileen arazo ekonomikoak estaliko zituen beldur zen. “Plutokratek beren emazteak antolatu dituzte”, zioen, “sufragioarekin entretentuta dauzkate”.

Domitila Barrios Chungara (1937-2012) boliviarrak Siglo XX meatzean jaio eta hazi zen. Senarra meatzaria zuen eta haren eskutik hasi zen meatzarienen eskubideen aldeko borrokan. Besteak beste, Hugo Banzer jeneralaren diktadura mi-



Emakumeak meatzean lanean Galesen, Lehen Mundu Gerra garaian


MINING REVIEW

litarren amaiera eragingo zuen gose greba abiatu zuen 1977ko Eguberrian, beste lau emakume meatzarierekin batera. Gobernuaren jazarpenetik ihesi joanda, aitzak marxismoari buruzko hainbat liburu helarazi zizkion eta orduan konturatu zen pentsatzen zuena han idatzita zegoela.

Gurean, Dolores Ibarruriren (1895-1989) senarra ere meatzaria zen. Espainiako Alderdi Komunistaren idazkari nagusia izango zenak, 1918an erabili zuen lehenengoz *Pasionaria* ezizena, *El minero vizcaíno* (meatzari bizkaitarra) izenburuko artikulua sinatzeko. Ibarruri Gallartako meatzeetan jaio zen, Abanto-Zierbenan, eta egun hortxe dago Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa. Egunotan, eta uztailaren 31a arte, *Lidergo femeninoak meatze-eskualdeetan* izeneko erakusketa dago ikusgai bertan. Aipatutako hiruez gain, meatzeguneetan

lidergo rola hartu zituzten beste zazpi emakumeren ibilbideak jasotzen ditu, Jatorri geografiko, ideologiko eta kultural desberdinak dituzte hamarrek, baina batzen dituzten ezaugarriak ere bai.

Ruben Vega Oviedoko Unibertsitateko historialari eta erakusketaren komisarioaren hitzetan, “ekintzatik abiatuta joan ziren beren profil ideologikoa osatzen, eta ez alderantziz”. Gainera, denak tradizionalak maskulinoak izan den eremuan, “testosteronaz betetako meatzeen munduan”, egin zieten buru gizonei, rol nabarmenak lortuz, baina emakumeen menpeko roletik, “amen eta emazteen roletik” abiatuta. Beren burua ez zuten feministatzat eta militante feministaren definizio zehatzak ere ez litzuke barne hartuko, “baina *de facto* baziren, menpeko rol horri aurre egitea lortu zutelako”. ■



Hatz-markak, 4.000 urteko sinadurak

1886an, Charles Darwinen lehengusu Francis Galtonek pertsona guztiek beren hatz-marka bereziak zituztela baieztatu zuen, eta bi marka berdina aurkitzeko probabilitatea ere kalkulatu zuen: 64.000 milioitik bat.

Dena den, hainbesteko zehaztasunik gabe ere, Antzinarotik zen ezaguna hatz-marken ezaugarri bereizgarri

hori. Duela 4.000 urte babiloniarrek kontratuak sinatzeko erabiltzen zituzten; transakzioen nondik norakoak jasotzen zituzten buztinezko oholetan aurkitu dira. Antzinako Txinako buztinezko zigiluetan ere aurkitu dituzte. Eta XV. mendeko Pertsian ere gobernuak hainbat agiri ofizial hatz-markez sinatu zituzten. ■

Baratxuri giroa



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Gorriin sasoian gaude. Gorrina, mildiua, gorriena, gorria, elgorria, herdoila, ugera, suherreta, izen ugari jaso dugu oinordetzan, baina zikulu saltsa ederra dugu gaitzak behar bezala izen jakinekin lotzen.

Hala ere, gorriin sasoian gaude. Aurtengo lehen ia sei hilabeteetako eurite amaigabeak puska baterako hezetasun gorena lotuta utzi du. Eta okerrean orain dator: beroa. Bat-batean giro fresko samar batetik urteko bero handietara igaroko gara, inolako egokitze tarterik gabe. Izan ere, urteko egunik luzeenetan gara, eta eguzkia bere orbita garaienean dabil, irribarreari eutsi ezinik... Horrek onddoen eta perretxikoen eztanda ekarriko du. Baita landareetan gaitzak sortzen dituztenena ere. Beroa



Landareen gaitzei aurre egiteko, hel diezaiogun baratxuari, *Allium sativum*.

eta lurra etengabe ura lurruntzen, landareen gaitzak eskuak pozez igurzten ariko dira. Hain zuzen landareek urteko hazkuntza handiena izaten duten sasoiaren amaieran.

Orain eguna laburtzen hasten denean landareek hazkuntza ahaztu eta ugalketari begiratu diote. Udaberrian hazitako adar, zarba eta mastrak ahulak dira, hazi eta hazi biguin eta guri daude. Hemen-dik atzera, luzatutako puja horiek zaildu egingo ditu, eta horietan sortzen dituen elikagaiak fruituak haztera eta ontzera bideratuko ditu. Zaildu bitarte horretan, gaitzek pagotxa izango dute. Gorriak eta ez direnak, hautsa, hauts-berretxikoa, herdoa, herdola, zolda, ugalatza, zurina, zuriteria, añoa, ludoia, ikatza, ilintxa... Kupiditzen al ditugu landareak!

Landareek, ordea, ez dute errukiaren berririk. Hel diezaiogun, beraz, baratxuari, *Allium sativum*. Sukalderako bezala baratzerako lagun ederra da. Gaitzak sortzen dituzten onddoen aurkako aliatu leiala. Baratxuria egosita prestatzen da: txikitu libra bat baratxuri, bost litro uretan jarri, irakitera eraman eta ordu erdi batez su motelean eduki gozo-gozo, jarri tapa eta 12 orduz utzi, iragazi eta zuzenean erabili. Ez da kontserbatzen.

Busti gaitzik hartuko duen susmoa dugun landarea, eguzki galdatan ez dagoela, betiere. Gaitza harrapatu duenari kendu historik hondatuenak, eta busti zortzi bat egunez, egunero, goi eta behe, azpi eta gain.

Esaerak hala dio: baratxuria gaitz guztien kontrakoa. ■

Produktu EKOLOGIKOEN banatzaileak



"Cal Valls"



onura



...

Bisitatu gure webgunea: www.biotza.es

BIOTza

banaketak.s1.

IDOKI ETA EUSKAL HERRIKO
ETXEKO EKOIZLEEN ELKARTEA

"Txikia zarenean, kolektiboan eginez soilik ahal daiteke"



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: IDOKI

"Etxeko ekoizleak bakarrik egiten du lan bere txokoa: bakarrik egiten du lehengai, bakarrik transformatzen eta saltzen. Elkartea sortzeko lehen beharra elkartzea izan zen, ekoizleak elkar ezagutzea eta bakartasun horretatik ateratzea". Isabela Barreix Idokiko langileak azaldu dizkigu Euskal Herriko Etxe Ekoizleen Elkartearen (EH EEE) hastapenak. 1989an jarri zuten elkar-
tea martxan Ipar Euskal Herriko laborariek, eta 1992an Idoki kalitate agintza sortu zuten, etxaldeko ekoizpenari balioa eman eta hura zabaltzeko asmoz. 90 etxalde inguru daude egun kalitate agintzaren barruan.

Etxalde txiki eta ertainetako laborantza iraunkorra oinarri

Laborantza iraunkorraren printzipioetan oinarritzen da Idoki kalitate agintza. Etxalde txiki eta ertainetan ekoiztutako produktuek daude markaren barruan, eta gutxienez baldintzak bete behar dituzte etxaldeek bertan egoteko: ekoizleek beren lehengaiak soilik erabiltzea, salmenta zuzena eta merkaturatze zirkuitu laburrak lehenestea, abereak egun guztiz kanpoan izatea edota kalitatezko osagaiak erabiltzea etxe-ekoizpenetan -koloratzaile eta beiratzailak debekatuak dituzte, esaterako-.

Azken bi urteetako gogoetaren ondoren araudiak zorroztea eta aurrera

begirako urrats gehiago ematea erabaki dute: 2027. urterako etxalde guztien praktikak inongo gai kimikorik gabekoak izatea erabaki dute. "Trantsizio fasean gaude: hurrengo hiru, sei eta bederatzirteetarako lan ardatzak finkatuak ditugu. Etxalde bakoitzak hautatuko du nondik hasi behar duen". Elkartearen lana izanen da ekologikorako trantsizio horren jarraipena egitea, lan taldeak sortzea eta etxaldearen artean truke eta formazioa egitea.

Merkatuak eta iniziatiba kolektiboak

Marka hutsa izatetik urrun, ekimen ugari egiten ditu urtean zehar Idokik. "Antolatzen ditugun azoka eta ekitaldiekin urtea zertxobait arrimatzea da gure nahia", dio langileak. Esaterako, Ezpeletan urtero antolatzen duten Idoki feriak 20. urtea beteko du aurten, abuztuaren 10ean.

Laborarien arteko ekimen kolektiboak ere bultzatu dituzte azken urteetan: Xuhito haragia transformatzeko gune kolektiboa adibidez, baina baita laborariek garatu dituzten salgune kolektiboak ere. Gune horiek egituratzen eta garatzen lagundu du etxe ekoizleen elkar-
teak. "Txikia zarenean, kolektiboan eginez bakarrik ahal daiteke. Denbora gehiago hartzen du, nekezagoa da agian, baina kasik aukera bakarra da aitzinera joateko". ■



www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Uztailak 12: Barakaldo

Itxi dezagun zikloa: ikasi birziklatzen hitzaldia. 11:00etan Natur Gelan.

Uztailak 12: Gasteiz

Berdegunak, leku isilik jarduera. Ixileku elkartearen eskutik, adin guztientzako. 19:00etan Atarian (Biosfera pasealekua, 4).

Uztailaren 13tik 20ra: Bargota

Sorgintzaren astea. XVII. mendean giroturik, herritarrek estandarteak, lasto fardelak eta altzariak jartzen dituzte kaleetan. Jarduera anitz izaten dira: Erdi Aroko azoka, hitzaldiak, tailerrak...

Uztailak 14: Bera

Baztan-Bidasoa aldeko nekazarien azoka. 10:00etan Rikardo Baroja ikastetxean.

Uztailak 14: Donostia

Lorategi inbaditzaileak hitzaldia emango du Jakoba Errekondok. 11:00etan Uliako Mintegiak Parkean (J. Elozegi Alkatea Etorbidea, 82).

Uztailak 15: Donostia

Añarbeko urteigira eta ingurura bisita gidatua, ur-masa egonkorrek ekosistemetan duen eragina ikusteko. 10:00etan Donostiako autobus geltokian. Izena emateko: 943453526.

azoka

NOLA SALDU ZURE GAUZAK AZOKAN: Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" atala. Bost minutuan jar dezakegu edozer salgai Interneten, euskal herritar denen eskura.

ARGIA JENDEARENTZAT MUSUTRUK: ARGIAko kideei zerbait eman nahi izanez gero, badugu aukera. Ostegunero 10:00etan izaten da txupinazoa: ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak publiko egiten diren unea.

www.argia.eus/azoka • [@argiaAzoka](https://twitter.com/argiaAzoka)

Era guztietako **salgaiak** aukeran: ikus-entzunezkoak, mahai-jolasak, argitalpenak, laminak eta mapak, gorputzarentzakoak, bitxiak, eskulangintza, jantziak...

87
salgai

INOR EZ DA ILEGALA KAMISETA

Kamiseta hau erosita, 2 euroko ekarpena egingo diozu Mbolo Moye Doole Bilboko kale-saltzaileen elkarteari.

Ezaugarriak:

- Kolorea: grisa.
- Bi mota: zabala eta estua.

Neurriak:

- Zabala: M, L, XL eta XXL.
- Estua: S, M, L, XL eta XXL.



15 euro



Uztailaren 12an, 10:00etan...
ARGIA Jendearentzat musutruk jarriko ditugu argia.eus/azoka webgunean:

34
gai
musutruk



Bizi Baratzea lamina 13 eta 14

Joseba Larraetxek eginiko lamina originalak. Neurriak: 35 x 50 zm.



Biezko Baserria (Axpe)

Bi lagunentzako asteburu-pasa.

“Ilegala banaiz, alda zuen legea”



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Horrela dio Willis Drummond talde lapurtarraren letrak, eta aste honetako artikulurako ezin egokiago datozkit hitzok. *Inor ez da ilegala* leloa hartuta dago jada errefuxiatuen eta etorkinen aldeko aldarrikako bandera moduan. Askori egiten zaigu ezagun. Aldarrikapen horrekin bat egiten du ARGIAk ere, eta kamisetak jarri berri dira salgai lema horretxekin.

Ez da, ordea, hor bukatzen. Gogoratzen orain hilabete pasatxo Bilboko kale-saltzaileen inguruko erreportaje hura? Astekariko azal latza zuen; oroi-tzen? Bada kale-saltzaile horien esku-bideak borrokatzeko lanean ari den Mbolo Moye Doole elkartearekin elkarlanean egindako tixertak dira orain ARGIAren Azokan salgai daudenak. 15 eurogatik eskuratu daitezke, eta horietatik 2 euro Bilboko kale-saltzaileen elkartearentzat dira. Diru-iturri txiki bat? Bai, noski; baina ez hori bakarrik: Euskal Herrian beraien aldarrikapena jendeak jantzita eramatea oso garrantzitsua da.

Erosteko aukera

argia.eus/azoka webgunean.

Kamisetei buruzko informazio teknikoagoa, ondoko orrian.

Euskara izan dadila lotura

Euskaraz eta wolofez idatzita dago *inor ez da ilegala*. Zergatik wolofez? Senegaldarra baita Bilboko kale-saltzaileen elkarteak biltzen duen komunitatea. Eta zergatik euskaraz? Euskal Herrian gaur egun dagoen jatorri aniztasuna ikusita, euskara nahi dugulako izatea munduko edozein lekutan jaiotakoarekin komunikatzeko eta bizitzeko tresna. Hortxe du erronka gure hizkuntzak. Horixe dugu erronka euskaldunok. Zergatik egin gaztelaraz edo frantsesez hizkuntza horiek ama-hizkuntzat ez dituen norbaiti? Zergatik ez diogu euskaraz egiten, gure arteko lotura hori izan dadin?

Bete-bete dagoen leloarekin ados, pertsonak munduan libre ibiltzeko esku-bidea aldarrikatu nahi da ekintza honekin, eta ez pertsonak ilegal diren aitzakian dirua munduan nahieran mugitu. Jo-puntu dagoen kolektiboa da kale-saltzaileena (besteren artean), baina euskaldunok ere ondotxo ezagutzen dugu zer den ilegalizazioa, eta oraindik ere munduko hainbat txokotan ilegal egotea. ■

Alfredo Ramirez
(@erreharria)
Zamorako espetxetik

“Ederra da egiten duzuen lana. Zuen aldizkaria hilabetero sartzen da nire txaboloan, familiak ekarritako paketeen. Aitortu behar dizuet desiatzen nagoela momentu hori. Hemen estatuko telebista (des)berdinak bakarrik ikusteko aukera dut eta buruko mina sortzen didate. Eta bai, nik ere aitortu behar dut beti hasten naizela ARGIA irakurtzen azken orrialdetik ;)”

Mezu hau jasoz geroztik astero bidaltzen zaio Twitterren idazteagatik kartzelan dagoen Remirezi astekaria libre eta doan, horrela nahi duten preso politikoekin egiten dugun gisan. Besarkada bat bueltan, Alfredo!

ARGIAren Plazan 54 eragileren albisteak

www.argia.eus/plaza -n sartuta, Euskal Herriko era guztietako 54 eragilek euskaraz ematen dituzten albisteak ikus ditzakegu. Kultura, ekologia, langile borroka... mugitzen ari dena, mugitzen direnek kontatuta.

AGENDA

Balioak eta nortasuna euskal gizartearen eraikuntzan: berrikuntza-plataforma irekiak ikastaroa

- EHUK antolatuta, uztailaren 16 eta 17an izango da Donostian, Miramar Jauregian, 9:00etatik 14:00 aldera arte. Esperientzia hauek azalduko dira: Elhuyar, ARGIA, Ikastolen Elkartea eta Elkar. Matrikulazioa zabalik dago www.uik.eus helbidean.

Elkar fundazioa

Euskal kulturaren erraldoia Espainiako liburu-banatzailer handienetakoa ere bada

Aldaketa handiak eman ditu Elkar taldeak azken urteetan eta horien ondorioz, besteak beste, Espainiako Estatuko liburu banatzaile handienetako bat bihurtu da. Ekainean prentsari azaldu dizkiote enpresa-konglomeratuaren azkenaldiko apustu estrategiko batzuk, euskal kulturaren leku zentrala daukan fundazioaren erradiografia egiteko aukera paregabea eskainiz.



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria


ARGAZKIA: DANI BLANCO

Ekainaren 19an Elkar fundazioak kazetariak konbokatu zituen Donostiako Barceló Costa Vasca hotelean. Ezohiko agerraldia, taldearen egitura osoaz eta martxan dauzkaten negozio-lerroez informatzeko baliatu zuena, orain arte publikoarentzat oso ezagunak izan ez

diren datuak eskainiz. Denbora gutxian Elkarrek egin duen bigarren agerpen publiko esanguratsua da, aurretik Siadeco ikerketa elkarteari euskal kulturaren kontsumoa azter zezala eskatu eta martxoan aurkeztu baitzuen zeresana eman duen inkesta: ondorio nagusietako batek dio euskaldunen erdiek baino gehiagok ez dutela euskal kulturarik kontsumitzen.

Elkar fundazioari buruzko pertzepzio publikoaz ere galdetu zieten in-

kesta hura erantzun zutenei: euskal herritarren %65ek du enpresa-taldearen ezagutza, baina fundazioko lehendakari Joxemari Sorsek Donostian emandako azalpenen arabera, "kasurik gehienetan oso mugatua eta partziala" da ezagutza hori. Hara hor, beraz, denbora gutxian bigarren aldiz plazara atera izanaren zergatietako bat: "Ezagutzera ematea garrantzitsua dela baloratu da, are gehiago kultur munduak -eta bereziki liburu-





ren munduak- etengabeko aldaketa bizi duen une hauetan”, irakurtzen da goizeko kafearen bueltan bildu ziren prentsako langileei banatutako txostenaren sarreran.

Ondoko orrialdean, euskal kulturaren konglomeratu enpresarial nagusiaren mapa ikusten da: bost argitaletxe -gehi beste bitan partizipazioak-; beste bost banatzaile -horietatik lau Euskal Herri- kanpo-; 18 liburu-denda; eta beste enpresa batzuk, hala nola, Leitzaran in-

primategia, ikus-entzunezkoen ekoiztetxe baten zati bat, Hamaika TB telebista katearen %10 eta Martin Ugalde kultur parkearen %50 -beste erdia *Berria*-rena da-. Hori da Elkar gaur egun: 433 langileko taldea, 2017an 120 milioi euro baino gehiagoko fakturazioa izan zuena, lau milioi euroko irabazi gordinarekin -amortizazio, zerga eta finantza gastuak kendu gabe, alegia-. Banaketaren alorra da talde handi horren zutabe nagusia.

Espainiako Estatuko banatzaile nagusien artean

Zehazki, 90,7 milioi euroko fakturazioa izan du Elkarren banaketa-adarrak iaz, Donostian emandako datuen arabera. Eta orain arte oso ezaguna izan ez den zerbaiti buruz informatu du: fakturazio horren %21 besterik ez dagokio Euskal Herrian egiten den banaketari. Beste guztia Euskal Herritik kanpoko distribuzioari zor zaio: %79 -71 milioi euro baino gehiago-.

Mikel Esnal Elkarreko zuzendari kudeatzaileak esplikatu zuen azken bost urteetan egin duten apustua, baina aurrietik nabarmendu zuen liburuaren sektoreak Espainiako Estatuan 2008tik 2016ra izan duen bilakaera negatiboa –salmentak ia heren bat gutxitu ziren tarte horretan; krisi ekonomikoaz gain, Esnalek “faktore ezkor” espresioa erabili zuen bestelako kausak seinatzeko, besteak beste, testu-liburuen berrera-bilpena eta irakaskuntza-eredu digitalak-. Testuinguru horrek eragin du Elkarren estrategia-aldaketa Costa Vasca hotelean aditzera eman zutenez. Tamaina handiagoko aktore izatea jarri zioten beren buruari helburutzat: “Euskal Herri mailako jokalarizateak merkatu dimentsio txikian aritzea esan nahi du, posizio ahulean kokatzen den jokalaritxikiegia izatea”. Beraz, politika espantsiboak gidatu du fundazioaren banaketa-ildoak azkenaldian eta zenbait apustu egin dituzte norabide horretan: Dispe banatzaile madrildarra erosi dute, baita Valentziako Morcillo ere –biek ere liburuak, ikasmaterialak, jokoak eta papertegiko produktuak banatzen dituzte-.

Euskal Herrikan kanpo egiten den banaketaren argazkia osatzeko, fundazioak “betidanik” izan dituen enpresak gehitu behar dira, alegia, Bartzelonan kokatuta dagoen MCL, Katalunian eta Balear Uharteetan funtzionatzen duena; eta Madrilen dagoen ACL, erkidego horretaz gain Gaztela Mantxa, Gaztela Leon, Asturias, Galizia, Aragoi, Valentzia eta Murtziaraino iristen dena.

Donostiako aurkezpenean ez zuten aipatu beste enpresa bat, zeinaren erdia erosi zuen fundazioak 2015ean: Uppali frankizia-negoziaren %50 Elkarrena da gaur egun. Bi urte lehenago Abacus banatzaile kataluniarrak martxan jarri zuen formatu berria da, haurrentzako liburu, jostailu eta eskulanetarako materialak saltzen dituzten dendak sortzerabideratua. Elkar sartzearekin batera, testu- eta narratiba-liburuak ere eros daitezke Espainiako Estatu osoan saltokiak irekitzen ari den kate horretan –adibidez, 2019rako Aragoi bost dendaberri irekiko direla argitaratu zuen iazko abenduan *Heraldo* egunkariak-.

Biltegietan ere berrikuntzak egin ditu Elkarrek, Donostiakoan zentralizatu ditu Madril eta Bartzelonakoak, mekanizazioan inbertsio garrantzitsuak egin... Dena batuta –enpresen erosketak

» **Banaketaren alorra da Elkarren zutabe nagusia: iaz 90 milioi euro baino gehiago fakturatu zituen jarduera horri esker**

» **Madrilgo banatzaile bat eta Valentziako beste bat erosi ditu azken urteetan, baita Uppali frankiziaren erdia ere**

» **Elkar marka duten 18 liburu-dendez gain, beste 20 dendak taldearen kudeaketa sistema erabiltzen dute**

» **Hego Euskal Herrian Elkar denden merkatu kuota %34,5ekoa izan zen 2017an eta sektorearekin alderatuz, gehiago hazi da**

» **Liburu elektronikoen apustuak ez du espero bezalako emaitzarik eman eta horregatik, Elkarren interneteko dendan hauek saltzeari utziko diote**

» **Argitaletxeek Elkar taldeko %8 fakturatzen dute baina euskal liburuen alorrean pisu handia dute: argitaratzen den liburuen %20 inguru**

eta biltegietako aldaketak– 24 milioi euro kostatzen da estrategia-aldaketa. Emaizta onak eman dizkienik ezin uka, ekainaren 19an publiko egin zituzten zenbakiak ikusita %95eko hazkundea izan baitute banaketaren alorrean 2012tik 2017ra bitartean, Espainiako Estatu liburu-banatzailen artean lidergotik gertu kokatzeraino –fakturazioan lehenak direla aipatu zuen Esnalek-.

Paperezko erraldoia

Euskal Herrian ere ez da mugimendurik falta izan azkenaldian, Kepa Matxainek aldizkari honen 2.603. zenbakian argitaratu zuen moduan: Elkarrek Bitarte banatzailea erosi du eta operazio horrek badu zerikusirik Iruñeko Auzolan liburu-dendaren itxierarekin, hau banaketa-enpresa nafarraren parte baitzen. Esnalek Donostiako agerraldian azaldu zuen Bitarteko langileek lanean jarraituko dutela Elkarren eta tratua onurak nabarmendu zituen: “Garaia da indarrak uztartzeko. Pozik gaude akordioa lortu izanagatik”.

Denden eta banatzaileen arteko harremana da liburu-salerosketaren gaikoetako bat. Elkarrek, bere saltokiak edukitzeaz gain –Zuberoan eta Nafarroa Beherean izan ezik, probintzia guztietan du presentzia-, beste formula bat ere jarri du abian azken lau urteetan, “denda laguna” izenekoa. Beste 20 liburu-denda daude sare horretan sartuta. Zer esan nahi du horrek? Aurretik zeukaten gestio-sistemaren ordez, Elkarrena jartzen dutela beraien dendetan, “bikaintasunez” lan egitea ahalbidetuz, zuzendari kudeatzailearen hitzetan; baina “autonomia osoa” mantenduz, kudeaketa sistema propioa ez edukitzeak uzten duen heinean behintzat.

Kaleko dendetan jarri du fokua Elkarrek, sareko salmentetan lehiatzeko aukerak urriagoak direla ikusita. Eta terreno horretan, bada nor: iaz liburu-denden adarrak %34,5eko merkatu-kuota izan zuen Hego Euskal Herrian, sektorearen batez bestekoa baino kasik hiru puntu gehiago haziz.

Paperezko erraldoia dirudi fundazioaren atzekian dagoen enpresa-taldeak, fakturazioaren parterik handiena liburuei lotuta baitago eta beste formatuetan egindako apustuek ez diote nahi bezalako emaitzarik eman. Horrek esplikatu dezake aurkezpen hartan egindako beste iragarpen bat: *Elkar.eus*

interneteko dendaren bidez liburu elektronikoak saltzeari utziko diotela. Erabakia esplikatzeko, liburu numerikoen merkatuan gertatu den polarizazioaren berri eman zioten prentsari: edo “pirateria” edo “denok ezagutzen dugun erraldoia” –alegia, Amazon– nagusitu dira eta horietatik kanpo aukera handirik ez dagoela ikusita egin dute hautua, baita irakurgailuak saltzeak zentzu handirik ez zeukala sinetsita ere: “EITB telebista-aparailuak saltzen hasiko balitz bezala da”, esan zuen Joxemari Sorsek erabakiari buruzko xehetasunez galde-tuta. Nolanahi ere, taldeko argitaletxeek jarraituko dute euskarri digitalean argitaratzen eta liburu horiek erosi ahal izango dituzte irakurleek, editorialaren webgunearen bidez.

Txertoa argitaletxearen funtzio berria

Beste negozio-lerroekin konparatuta fakturazio txikiagoak dituzte Elkarren argitaletxeek, talde guztiaren %8, baina eztaba daezina da euskal liburugintzan duten pisua. Argitaratzen den bost liburutik bat da fundazioko editorialen batekoa eta horietan ere izan dira aldaketak.

Nabarmenena, Txertoa eta Ttarttaloren rol-banaketa. Aurrerantzean, Txertoa arduratuko da orain arte Ttarttalok publikatu dituen helduen liburuez eta bigarren argitaletxe hori haurrentzako lanak publikatzen espezializatuko da.

Badirudi historikoki eduki duen pisua berreskuratzeko duela Txertoak osterare. 1968tik dago martxan, hau da, Elkar argitaletxea bera baino lehenagokoa da; baina zenbait urtez ondo definitutako ildoak falta izan zaio, unearen arabera gaztelaniazko saiakerak, haurrentzako biografiak edo sukalde-liburuak argitaratu izan ditu. Orain marko zehatzagoa izango duela ematen du, euskarazko eta gaztelaniazko saiakerak, gaztelaniaz aritzen diren Euskal Herriko idazleen lanak eta euskal idazleen itzulpenak. Azken Durangoko Azokan jada sumatu zen aldaketa, besteak beste Lander Garroren *Gerra txikia* nobelaren itzulpena (*La pequeña guerra*) erdal irakurleen esku jarri baitzuen. Euskaraz argitaratu dituen azken bi saiakerak –Pako Suduperen *Telesforo Monzon, aristokrata abertzalea* eta Hektor Ortégaren *Tretatxu, lapurren gobernadorea*– zeresana

eman dute –bigarrenari buruzko erreportajea publikatu zuen Urko Apaolaza Avilak ARGIAren 2.599 zenbakian–. Zer esanik ez Joan Mari Torrealdairen *Ase-dio al euskera*-k, duela 20 urteko *El libro negro del euskera* osatzera etorri den 400 orrialdetik gorako bolumenak.

Datu, lan-ildoa, enpresa eta apustu estrategiko askoren berri eman zuen Elkar taldeak ekaineko agerraldian, ondorio ugari ateratzeko adina. Begi-bistakoe-na, honakoa: liburu bat ekoizten den momentutik erosleak eskuratzen duen arte, banaketa-saretik eta dendatik pasaz, fundazioaren enpresek zeresana dute produktuaren kate guztian. Eta kasu batzuetan –banaketarenean nabarmen– ez da Euskal Herrira mugatzen den indar-posizioa. Presentzia hori baliatu zuen taldeak berriz ere bestelako kultur politikak eskatzeko. Olatz Osa Elkar argitaletxeko zuzendariak aurreratu zuen, abian jarri dutela “etxe barruko gogoeta” gai horri buruz eta ondorioak partekatuko dituztela beste eragile kulturekin. Siadecoren ikerketarekin irekitako lanketa publikoak aurrerago ere segida izango duela dirudi beraz. ■

Kalean da udako

aizu!

- Uda honetan ez aspertzeko bost proposamen
- Olatz salvador arin-arin
- Jaiak antolatzeko moldeak eraberritzen

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizu.eus

Patrick Melrose

Delirium tremens

Bost atalez osaturiko miniserie berri bat jarri nahi nuke erakusleahoan, Showtime telebista kateak ekoiztua eta Benedict Cumberbatch aktorea erabateko protagonista duena. Edward St Aubyn idazlearen bost liburutan oinarrituriko kontakizun honek barrenak nahasi dizkit.



Gaizka Izagirre
@Gaizka_Izagirre

Pantaila argitu eta telesailaren lehen segundoetan soinu bat iristen zaigu. Telefono dei bat. Kamera mugitzen den bitartean, telefono zahar baten kable kizkurduna ikusten dugu. Une horretan, dardarka sumatzen dugun besoak telefonoa hartzen du. “Bai?”, dio ahots sakon, ilun eta tristeak. Planoa zabaltzen den heinean, protagonista dela ohartzen gara, Patrick Melrose. “Albiste txarrak New Yorketik, zure aita hil da”, dio atzerapenarekin entzuten dugun ahots batek. Protagonistak telefonoa eskegi, eta haren aurpegi triste eta goibela pixkanaka -ia konturatu gabe- eraldatzen hasten da, tristura hori barre bilakatzeko den arte. Kamera bere aurpegiaren lehen planotik urruntzen doan heinean, besotik xiringa bat zintzilik duela konturatzen gara.

Horrela aurkezten da lehen kolpean bai telesaila, baita protagonista ere: Patrick Melrose. Minutu gutxi irauten duen sekuentzia horri esker, Patricken egoeran eta aitarekin zuen erlazioan zerbait arraroa dagoela sumatzen dugu. Luzez aritu ninteke pertsonaiak duen mamiari buruz eta Benedict Cumberbatch aktorearen interpretazio ikargarriari buruz, baina pertsonaiaren inguruko trazu batzuk soilik emango dizkizuet, irakurtzekoa baino, zuzenean ikusteko eta sentitzeko lana egiten duela uste dudalako.

Alde batetik, diru gehiegi izateak sor dezakeen bakardade jasanezinari buruzko kontakizun gordina dela esan daiteke. Alkohola eta era guztietako drogak erreminta gisa erabiliz, mundu honetan bere tokia aurkitzen ez duen eta berta-

tik ihes egin nahi duen tipo baten egunerokoa aztertzen du. Baina batez ere, eta gauza guztien gainetik, tipo batek iraganean, haurra zela, bere aitarengandik jasan zituen sexu erasoek etorkizuneari utzi ditzaketan ondorioei buruzko ikerketa beldurgarria dela esango nuke. Aipaturiko idazlearen benetako tragedian oinarrituriko telesail hau urteko bortitzenetarikoa iruditu zait.

Bost atal ditu kontakizunak eta bakoitza gertakizun konkretu baterako bidaia bihurtzen da. Trama nagusiaren egituraketak urte eta kokaleku desberdinetara eramaten gaitu hasieratik eta tipoak bizitza osoan jasan duen guztiak balio digu egungo Patrick nolakoa den ulertzeko. Eta batez ere, egiten dituen ekintza hedonista eta autosuntsitzaileekin enpatia izaten saiatzeko. 1980ko ha-





markadako New York hirian eta 2000ko hamarkadako Erresuma Batuan bizi izandakoa erakusten digun arren, bigarren atalean azaltzen den 60ko hamarkadako Frantziako herrixka zoragarria aipatu nahi nuke: maisulana iruditu zaidan bigarren atalean, umea denean, herriak eta etxeak berak transmititzen duen argi, kolore eta alaitasun horren azpian, iluntasun absolutua dagoela ohartzen gara, bere gurasoek erakusten baitute –gehiegi azaldu nahi ez ditudan ekintza ugarirekin–, guraso eta pertsona bezala porrot absolutua direla –Hugo Weaving eta Jennifer Jason Leigh aktoreek bikain egin dute hori pantailan islatzeko lana–.

Guztia era ia perfektuan kontatuta dago. Zinemak eskaintzen dituen erremintak era zoragarrian erabili dituzte:

hasteko, isiltasunak adieraz dezakeen guztia azken muturreraino eraman dute, ikuslea hasieratik protagonistarekin bat eginaraziz. Teknikoki ere zoragarria da: planoen mugimendu sotilak, atalaren eta protagonistak bizi duen egoeraren arabera argiztapen natural eta artifizialen arteko talka eraginkorra... Muntaia, ikaragarria, ezinbestekoa, batez ere pertsonaiaren burua bere tokian ez dagoen uneak deskribatzeko. Baina nabarmenena: ia ezer ez dagoela hitzen bidez azaldua. Amaieran esplikatioagoa bilakatzen den arren, telesaila oso modu psikologikoan kontatuta dago; ez dugu zuzenean ezer gordinik ikusten, baina zer gertatzen den sumatzen dugu. Elkarrizketa batean gauza bat esan da, baina azpian beste zerbait antzeman dugu. Pertsonaia batek barre

egin duen arren, begiek beste zerbait diote...

Une batean Patrick-ek *delirium tremens* egoera bat bizitzen du, alegia, abstinentzia-sindromeak eragindako nahasmen une bat. Telesailak, umore beltz apur bat tartekatuz, era horretako muturreko egoerak irudikatzen dituenean, gorroto moduko bat sentitzen dugu protagonistarekiko. Jasanezina izatera heltzen da une batzuetan, enpatiarako aukera kolokan jarritz. Baina bat-batean, bigarren atala burura etortzen zaigun unean, berriro ere bere bihotz eta garunean kokatzen gara eta Patrick Melrose zeharo maitatzen amaitzen dugu.

Drama lazarzari, tragiko, gogor, baina baita dibertigarri eta oso bizi bat ikusteko gogoz bazabiltza, Patrick Melrose da aukeratu behar duzuna. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ez da kasualitatea



Amaia Alvarez Uribe

2006an Judith Butlerren *Undoing Gender*. 2007an *XXY* pelikula. 2008an, Beatriz Preciadoren *Testo Yonqui*, Euskal Herriko Jardunaldi Feministak (Portugaleten) eta Feminismo Porno Punk jardunaldiak (Donostian). 2009an, Virginia Despentesen *King Kong Théorie*, Espainia-ko Estatuko Jardunaldi Feministak (Granadan) eta... *Stereo* antzezlanaren estreinaldia.

Ez da kasualitatea antzezlan horretan generoaren, gorputzaren eta desioaren gaineko gogoeta egitea aurreko lan eta topaketetan trans-feminismoaz eta queer teorian aritu ostean.

Ez da kasualitatea *Stereo* izenburua jarri izana performance honi, Miren Gaztañagak bere baitako alde femenino eta maskulinoak androginiaren ideiarekin inguruan askatu eta haiekin jolastu ondoren.

Ez da kasualitatea estreinatu eta bederatzi urtera liburu formatuan argitaratutakoan gidoi dramatiko soilik agertu ez izana, izan ere, sorkuntza pertsonaletik abiatutako talde-lana partekatu nahi izan dute: sortze prozesua, inspirazio iturriak, antzezlanaren deskribapena, lan pertsonalari buruzko gogoeta, lan taldearen esperientzia (Ainhua Jauregi, Ainhua Resano, Ibon Agirre), gonbidatuen ekarpenak (Kattalin Miner, Jokin Azpiazu, Miren Narbaiza Martiartu, Oihana Garro Larrañaga), eta EHAZEko Oier Guillanen hitzostea.

Ez da kasualitatea nagusiki gorputzarekin eta musikarekin egindako lana izatea eta oso testu gutxi egotea, dantza eta antzerkiaren arteko obra bat da, azalaren azpian bizi diren ni-ei lokarriak soltatu eta arnasa eman diela-

Stereo

MIREN GAZTAÑAGA

EHAZE, 2017

Miren Gaztañaga aktorea
(Irun, 1979).



ko, erabili dituen hiru testu laburrak ekintza eta pertsonaia artean tartekatuz.

Ez da kasualitatea hasieran bi eta amaieran lau pertsonaiak parte hartzea, hasierako galdera eragileen artean hauek izan zituela kontuan hartzen badugu: “Nor naiz ni? Zenbat ni daude nire barruan? Izateko baimena ematen diet guztiei?”, jendartean inposatu zaizkigun rol femenino eta maskulinoak nola bizi eta sentitzen ditugun jabetzearen eta ahalduzko prozesu bati hasiera –edo jarraipena– ematea. Eta, ez da kasualitatea oraindik han eta hemen antzeztea, aurreko urte hasieran azken aldiz –oraingoz– Oiertzen antolatutako zituzten *Genero praktikak* jardunaldietan.

“Euskal Herrian bada arlo eszeniko ausart, probokatzaile eta moduetan garaikide bat, kasu askotan ezagutua izateko zain dagoena” (Oier Guillan). Aukera baduzue, irakurri eta ikus-entzun ezazue, merezi du eta gure barrua tarteka astintzeak. ■

» KONTZERTUA

Omenaldi entretenigarria



Montserrat Auzmendi del Solar

Datorren abuztuaren 25ean, Leonard Bernstein jaio zenetik 100 urte betetzen dira, eta XX. mendeko musika-kultura amerikarraren erreferente izugarri honi omenaldia egiteko, Arriaga Antzokiak kontzertu-espektakulu ikusgarri bat antolatu zuen. Nire ustez, figura honen kalitate eta talentu miresgarriak ez dira behar bezala goraipatzen, agian publikoak Bernstein lotzen duelako genero konkretu batekin, film musikalekin hain zuzen ere, kontutan hartu gabe konpositore honen produkzio oparo eta anitza. Horrexegatik iruditzen zait benetan txalogarria musikari honi dedikatzea Arriaga-ko aurtengo denboraldiaren azken saioa. *I hate music* izenburuarekin (konpositorearen ume-kanta sorta baten titulua, hain zuzen ere), musikariaren pasarte famatuak eta ez hain famatuak biltzen zituen saio atsegina eskaini ziguten.

Ez zen ohiko kontzertua izan. Bernsteinen pasarte eta abestiak naturaltasunez lotzen ziren bata bestearekin nolabaiteko *music-hall* giroan sarturik. Argi-efektuak eta bestelako apaingarriak ez ziren falta, osotasun kuriozua eginez. Bakarlari pare bat izan genuen: Michal Friedlander piano jole israeldarra, oso eroso Bernsteinen musikarekin, eraginkorra une guztietan, eta gure Ainhoa Arteta, inoiz baino izarragoa. Izan ere, Artetak eraman zuen espektakuluaren pisu handiena. Dotoreki abestu zuen, baina ez zen izan bere aktuazio onena. Erraztasunez mugitu zen eszenatokian, nagusitasunez, *diva* bat bezala. Sinpatiaz

I hate music

LEONARD BERNSTEIN.
BILBAO ORKESTRA
SINFONIKOA ETA KORAL
ELKARTEA.


Zuzendaria: Karl-Heinz Steffens.

Bakarlariak: Ainhoa Arteta
(sopranoa), Michal Friedlander
(pianoa). Piano-laguntzailea:

Rubén Fdez. Agirre.

Arriaga Antzokia.

Ekainaren 23a.



ere bai. Artista gertua eta irribarretsua da, eta hori eskertzekoa da, bai. *West Side Story* obraren *I feel pretty* kantarekin hasi zen, nahiko irregularra. Baina gora joan zen tolosarra beste abesti batzuekin. *I hate music* adibidez, graziaz beterikoa atera zitzaion; *My name is Barbara* gustura entzun genuen; *Peter Pan* obratik ateratako *Dream with me* kanta oso adierazkorra iritsi zitzaigun. Baina *Somewhere* kantan, berriz, ez zuen asmatu tentsioarekin. Hori bai, hobetu beharko luke bere ingelesaren ahoskatzea.

Bilboko Koralelkarateak momentu distiratsuak oparitu zizkigun. *Mass* obraren *Gloria in Excelsis* ederki interpretatu zuten, adibidez, erritmoz eta adorez. Bilbao Orkestra Sinfonikoaren lana, Karl-Heinz Steffensen batutapean, doia izan zen uneoro. ■

Leonard Bernstein musikagilea
(AEBetako Lawrence,
Massachusetts, 1918–
New York, 1990).



Hau dena aldatu nahi nuke



Irati Majuelo Itoiz

ARGAZKIA:

XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

EZ DA KASUALITATEA BERTSO SAIOA

Noiz: ekainaren 26an. Non: Iruñean, Katakraken.

Gorputz publikoak gara plazan. Gorputz publiko bihurtu gara ohol-tza gainean, eta ohol-tzapean. Gure ahotsak diskurtso egin ditugu. Ikusgarri gara orain eta horrek susmagarri egiten gaitu. Gure aurretik zetozenek bidea ireki eta haiekin ibiltzera gonbidatu gintuztelako gara bertsolari orain eta hemen. Bertsotan zergatik jarraitzen dugun mila eta bat aldiz pentsatu arren. Eta pentsatzen jarrita, pentsatzen duten buruak ere bagara, hausnartu, ikertu eta zalantza egiten duten buruak. Barre egiten diegu gure buruei, umorea maite dugu, umorearen bertikaltasuna beste inor azpiratzeko erabiltzen ez badugu. Gure lagunekin kantatzea gustatzen zaigu, taldea gara, eta horregatik, zenbaitetan, aulki bakarrean guztion bandera eusteaz nekatzen gara. Horregatik eta horren kontrara, basa oihanean sartzen garen kontraesanak gara. Emakume* bertsolariak gara, bertsolari eta emakume*, bertsolaritzari ikuspegi feminista emateko prest. Ez baitugu kasualitate izaten jarraitu nahi.

Saiakera egin arren, ezin ditzaket artikulatu honetara ekarri *Bertsolaritza ge-*

nero ikuspegitik ikastaroan konpartitu genituen ideia guztiak, aberatsa bezain intensoa izan baitzen bi egunez elkarrekin bizitakoa. Ez da kasualitatea UEUko udako ikastaroen baitan antolatu eta plazak azkar batean betetzen hastea. Izan ere, emakume* bertsolariek aspalditik izan dituzte gai honi buruzko kezka eta aldarriak hizketagai; plaza hartu zutenetik, Kristina Mardarasek, Arantzazu Loidik eta Estitxu Arozenak mahai-inguruan azaldu digutenez. Bertso saio osteetan, etxera bueltako autoko elkarriketa luzeetan, Askizun eta Artaunso-ron egindako topaketetan eta ahalduztze bertso eskoletan lantzen joandakoa izan da, beraz, Iruñean familia-giroan azaleratutakoa. Ikastaroa baino areago, bertsoaren mikromunduko komunitatearen zalantzak eta diskurtsoak erroto eta galdera berriak planteatzeko plaza irekia izan da Katakrakeko aretoa.

Bi egunak borobiltzeko bertso saio musikatua eskaini ziguten Saioa Alkaizak, Nerea Elustondok, Miren Amurizak eta Maider Arregik, Danele Sarriugarteren gagez eta Gari Otamendi eta Ixak Arru-

tiren musikaz lagundurik. Kasualitate handia behar da lau emakume* ohol-tza bera konpartitzeko, eta aukera ongi probestu zuten lau bertsolariek, umorez zein sakontasunez kasualitate horri abes-teko. Honaino nola iritsi diren pentsatzen hasi eta inoiz jarri ez dizkieten gaiak atera zituzten kantura, norbere buruari barre eginez kritika fina egiteko. Egunerokoan gai diren gaiak ere ez ziren falta izan, jaietan gerta daitezkeen erasoan aurrean gurasoek dituzten beldurrak eta La Manadako kasua, esaterako. Arratsalde iluntzea gertu zegoen ordea, eta bi egunetako astindu mentalaren ostean, umorea behar zuen bai publikoak, baita bertsolariek ere. Kontraesanak lotsarik gabe agertu ziren mikro aurrean: martxoaren 8aren ostean sindikatuan bizitako aje emozionala, kuadrillakoek lagun baten ile-mozketari egindako kritikak, alaba feministaren eta ama dibortziatu berriaren arteko harremanak, bertsolari medikoren gorazarrea, bolleren dudak. Kontraesanez kontraesan, barrez leherrarazi zuten entzulea. Eta amaitzeko, aldarria: hau dena aldatu nahi genuke. ■

Christophe Aguiton. Ezkerraren muturretik



Sindikalismoan, altermundialismoan zein politikan, aspalditik dabil militatzen Christophe Aguiton soziologoa, beti ezkerraren muturretik eta horizontaltasuna mantendu nahian. Attac zein AC! elkarteetan eta Sud PTT sindikatuaren sortzaileen artean dugu. Atera berri duen *La gauche du 21ème siècle, enquête sur une refondation* (XXI. mendeko ezkerre, birfundazio bati buruzko azterketa) liburua aitzaki harturik, ezker muturraz eta alternatibei buruz aritu zaigu.

“Bestelako ereduak garatzeaz gain, boterera heldu behar dugu”



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Jenofa Berhokoirigoin

@Jenofa_B

Hondamendia saihesteko

“Kapitalismoak transformaziorako gaitasun ikaragarria duela uste dut. Hala ere, mugak begibistakoak ditu, krisi ezberdinen batuketari so egitea aski da: klimatikoa, ekonomikoa, soziala, migratorioa, baita zentzuena ere! Pentsa dezakegu, beraz, sistema azken hatsean dagoela. Ez du erran nahi irteera baikorra izanen denik. Uste dut ezkertiarren betebeharrak dugula alternatiben eraikitzea, sarraskiz beteriko hondamendi bukaera saihesteko”.

Muturrei begira dago hauteslea.

Mendebaldeko Europako eta Ipar Amerikako herriak so eginez, azken urteetako buruzko irakurketa bera egin dezakegu. 2007-2008ko krisiaz geroztik, eta ondorioz, hiru bilakaera antzeman ditugu: mundializazio liberalaren ezeztapena, boterearen egondako alderdien ahultzea eta igoera bikoitza, eskuin xenofobo populistarenean zein ezkerreko indar erradikalarenean.

Sistemaz sufritzen dutenak xarmatzen ditu eskuin muturrak.

Hauteskunde soziologiari xehekiago so egin behar zaio: egia da langile klase tradizionala ezker klasikotik erabat bereizi eta eskuin muturrera bideratu dela. Fronte Nazionalek dugu Frantziako langileria-aren boto gehien biltzen duen alderdia, berdin Alemaniako AfDrekin ala UKIPekin Brexit-aren aldekoentzat. Ezker erradikalak ez du lortzen bilakaera hori balaztatzen. Baina, kontuan hartu beharreko beste bi faktore ditugu: intelektual prekariorik, hau da, goi mailako ikasketak egin

eta prekariedade handian diren partetik ezkerreko boto erradikalak emendatu dira. Bestetik, luzaz ezkerrean egonik, orain eskuinean eta ezker erradikalean dira herritartasuna lortu duten etorkinak edota immigranteen umeak.

Langileria zuzendu behar zaio ezker erradikala.

Haien botoak eskuratuko ditu, baldin eta gai sozialei buruzko diskurtso argi bat baldin badu eta noski, lan eskubideen aldeko eta laguntza sozialaren aldeko borroka erakikiko aldekoatasuna erakusten badu. Hots, kategoria sozial hau zuzenean hunkitzen dituen gaiei buruz ari bada.

Boterera iritsita ere ezkerzaila zaio politika erradikala gauzatzea.

Ditugun adibideetan hiru arazo errepikatzen dira. Bat, noraino goaz hausturarekin? Argi ikusi dugu Syrizararekin gobernuak negoziatzea lehenetsi duela. Oroit gara sekulako aldekoatasuna jaso zuela Syrizarak kontinentean eta segur



"Tokiko alternatiboek ez dute modelo bakar eta koherente bat osatzen, trantsizio batean garelako; baina beste jendarte eta ekonomia bat osatzeko pistak dira".

naiz Atenaseko deiak Europa mailako mobilizazio bat ekartzen ahalko zuela. Ez dute bideratu nahi izan, ezta ere Grezia mailan, batez ere Yanis Varoufakisek proposatu B Plana baztertuz. Baldintza arras desberdinetan baina gauza bera ikus dezakegu Lularekin. Lurja-beek kontrolatzen duten parlamentua jaso zuen. Boterera iritsi zenean ez zuen nahi izan Batzar Konstituziogilea osatu, Chavez, Morales ala beste batzuek egin zuten gisara. Hausturarik egin ez izana oso garesti ateratzen zaio.

Zein da bigarren arazoa?

Problematikoagoa da, XX. mendeko ezkerren tradizioa auzitan jartzen duelako: garapen ereduari buruzkoa, produktibismoa edota extraktibismoarena. Venezuelaren kasuan, Chavez boterera iristerakoan Estatuaren aurrekontuaren %90 petroliari lotua zen, gaur egun Maduroarekin hein berean da. Bestelako eredu ekonomiko berri baten gauzapena eta gogoeta ezinezkoa zaie. Eta hirugarren arazoa: usu dago lidergo

azkar bat. Hor ere, benetako demokrazia bat garatzeko gaitasunik ez da.

Demokrazia ordezkatzailerik bi hitz?

XX. mendearekin dugun ezberdintasun handi bat da, orduan ezker erradikala jazarraldi edota gerrillen bidez zelako boterera iristen. Egun, hauteskundeak ditugu eta berez ez da arazorik. Baina demokrazia ordezkatzailerik baino haratago joan behar gara. Gaur egun, bost urtez errege gisako bat hautatzen dugu eta bere gehiengoa ongi giltzatuz gero, bost urtez libre du bidea.

Han eta hemen alternatibak loratuz doaz.

XX. mendeko sozialismoa oso estatista zen, ekoizpen handien nazionalizazioan eta ekonomiaren planifikazioan oinarritua. Noski, sektore nazionalizatu hori behar dugu zerbitzu publikoa segurtatzeko. Baina horrela ere dena ez doa ondo. Gaur egun, alternatiba berri batzuk agertzen zaizkigu, demagun ondasun komunekin. Ekonomiaz geneukan ikuspegia aldatzeko balio digu, antikapi-

talista izateaz gain antiestatista ere izan daitekeelako. Balore batzuk ere hedatuz doaz: ikuspegi antropozentratua alde batera uztearena, ekofeminismoarena... Guzti horiek ez dute modelo bakar eta koherente bat osatzen, trantsizio batean garelako; baina beste jendarte eta ekonomia bat osatzeko pistak dira.

Toki gehiegi hartzen badute, errepresioa.

Adibide onena Notre Dame des Landesko ZAD dugu. Estatuak oztopatu ditu, printzipio kontu batengatik, ekonomiaren ikuspegi indibidualistarekin segitzeko. Horrek erakusten digu, bestelako garapen ereduaren garatzeaz gain, boterera heldu behar dugula, legearen arauak aldatu ahal izateko. Tokiko alternatiboen garapena eta indar harreman sendo baten eraikuntza konbinatu behar ditugu. Zadistek mobilizatzen eta batasuna mantentzen jakin dute. Baita sistemarekin jokatzen ere: ikustearekin lurren gestio kolektiboa ezinezkoa zutela, proiektu indibidualak aurkeztu dituzte, baimena ukan ondoren berriz kolektibizatzen. ■



Identifikatzerik izan ez dugun zenbait gonbidatu izan dira EH-Donbasseko lagunen festan.

EH-Donbass komiteko kideek gaur bukatuko dute Errusia-Espainia partidu osteko parranda

Euskal Herria-Donbass Elkartasun Komiteak, Bilbiko azken tabernako pertsona jaisten ikusi duenean, erabaki du etxera itzultzeko garaia dela: joan den igandean Errusiak munduko futbol txapelketan Espainia kanporatu ostean, Euskal Herriko errusiarzaleak espontaneoki hasi ziren vodka botilak irekitzen eta, aitortu dutenez, "kontua pixka bat

eskuetatik joan zaigu". Iuri Urdangarin komiteko kidea duela zenbait ordutatik furgonetan lo dago, berak hartu baitu kuadrilla bueltan eramateko "ardura iraultzailea". Festan parte hartu dute zenbait aurpegi ezagunek ere, hala nola, Asier Blas EHUKo irakasleak, nahiz eta "Я должен исправить экзамены" esan ostean alde egin behar izan zuen.

Aranokoa izan da batukadarik gabeko LGTBIQ+ mobilizazio bakarra

Sexu Askatasunaren Aldeko Nazioarteko Egunean, hamaika zerbitzu eskaintzen duen telebista operadore baten izena hartu duen LGTBIQ+ mugimendua manifestazio alaitsuak egin zituen bazter guztietan, salbu eta Aranon. Egin, egin zuten kalejira, baina bildutakoek serio demonio zeharkatu zituzten kaleak, gerrialdea zurrin. Azken uneko baja batengatik ez baitzuten batukada

ateratzerik izan. "Txilibitua jotzen duenari atariko bilera urgente bat suertatu zaio, eta gidatuko gintuen pertsonarik gabe...", azaldu digu Ekaitz Burrundarena maraka-jotzaileak. Biziki penaturik sumatu dugu. "Carlinhos Brownek sartu zidan batukadarekiko harra* duela urte mordoak bat, eta ordutik ahal dudana guztietan jotzen dut: LTQ, LGBTI... tira, festibal alternatiboetan, jaunartze eta

SAREAN ARRANTZATUA

Odola e-postaz eman nahi?



Fito eta fitipaldiak



ezkontzetan. Orain, lehenbizikoz, marakak ezin izan ditugu armairutik atera".

Escola Ibitaviria

Uztailak 25-26-27-28

Urrats bat marraztuz etorkizunean

UZTAILAK 25 · 26 · 27 · 28

Irurtzun · Uharte-Arakil · Etxarri-Aranatz · Altsasu

★ **Ikasle Abentzaleak**
Ikasle euskaldun, ezkertiar eta feministon antolakunde iraultzailea




ARGLaren **AZOKA**n elkar elikatzen dugu

saldu

erosi

musutruk eman

musutruk hartu



80 gai baino gehiago salgai
50 gai baino gehiago musutruk